



# Hasi dadila jaia

Udaletxeko eta txosnaguneko txupinazoez abiatuko dituzte San Fausto jaiak, gaur. Aste bian, hamaika aukera izango dira Durangon jaietz gozatzeko. 200 ekitalditik gora jaso dituzte egitarauan. Ohiko jardueraz gainera, aurten Gangar Proba eta I. Talent Showa antolatu dituzte. • 4

## Soldaten %11,33ko igoeragaz, garbitzaileek eta Elorrioko Udalak akordioa lotu dute

**Elorrio I** Lansarien igoeraz gainera, orain arteko espazio berberak garbitzeko astean lanordu gehiago izatea negoziatu dute, eraikin bakoitzaren benetako premiak oinarri hartuta. • 2-3. orrialdea




## Gurutze Frades munduko triatloi txapelketan

**Kirola I** Triatleta iurretarrak Konako (Hawaii) Ironmanean parte hartuko du zapatuan. 18. orrialdea

 **UNAI  
GARAY**

ITURGINTZA · BEROGINTZA · GASA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



**Azkonizaga**

**Edari banaketa**

GARAGARDOAK · ARDOAK · LIKOREAK  
ESNEA · URA · FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58  
azkonizaga@azkonizaga.com





Astelehenean kontzentrazioa egin zuten udaletxe aurrean.

## "Lan baldintza duinen defentsan borrokan ibili gara, eta, azkenean, oso akordio ona lortu dugu"

Elorriko udal eraikinetako langileek greba mugagabeari ekin zioten apirilaren 29an, soldata arrakala amaitu eta lan baldintza hobek izateko asmoz. Udalak eta sindikatuek astelehenean sinatu zuten hainbeste itxarondako akordioa

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

161 egun greban egon eta gero, Elorriko eraikin publikoetako langileek malko artean eta txalo zaparrada handi batez hartu dute akordioaren berria. Soldata arrakala amaitzeko asmoz, Eulen enpresak azpikontratatuta duen zerbitzuko langileak greban egon dira apirilaren 29tik hona, eta astelehenean sinatu zuten azken bost hile hauetan itxaroten egon diren akordioa. "Lan baldintza duinen defentsan borrokan ibili gara, eta, azkenean, oso akordio ona lortu dugu", esan zuen ELA sindikatuko arduradun Ane Zelaiak sinaduraren ondoren.

Akordioan jasotakoaren arabera, langile guztiek %11,33ko igoera izango dute lansarrietan, kategoria igoeraren bitartez gauzatuko dena, eta, horrez gainera, astean lanordu gehiago izango dituzte, orain arteko espazio berberak garbitzeko. Elorriko Udalak jakitera eman duenez, langile guztien artean 1.700 ordu baino gehiago egingo dituzte urtean. Bestalde, sortuko liratekeen plaza berriak, beste inori baino lehen, lanaldi partzialeko kontratuak dituztenei eskainiko zaizkiela azaldu du Elorriko Udalak. Eta ordezkapenak egiterakoan, lanaldi

partziala dutenek lehentasuna izango dutela ere esan dute. Lizitazio berriaren iraupenari dagokionez, lau urtekoa izango da, eta urtebete luzatzeko aukera egongo da.

### **Sindikatuak pozik**

ELA sindikatua pozik agertu da lortutako akordioagaz, eta mobilizazioari eta langileen etengabe borrokari eskerrak lortu dela azaldu dute. "Soldata arrakalaren kontrako borrokan Elorriko lortu dugun akordioa oso garrantzitsua da. Izan ere, soldata arrakala oso errotuta dago udal guztietan garbiketa arloan. Soldata igoeraz gainera, gaitzuzteko konpontzea eta partzialtasunaren aurkako neurriak ere lortu ditugu, besteak beste",

**%11,33ko soldata igoera adostu dute Elorriko Udalak eta ELA sindikatuak**

esan du Zelaiak. Bestalde, Elorriko emakumeak beste borroka batzuen eredu izan daitezkeela esan du sindikalistak.

Sindikatuak kideak kritikoa agertu dira Eusko Jaurlaritzagaz eta honek ezartzen dituen zerbitzu minimoekin. Esan dutenez, emakumeek hainbat zailtasun izaten dituzte euren eskubideen alde borroka egiterakoan. "Greba feminizatuak dira denborarik gehien irauten dutenak, garbiketa eta zaintzagaz lotutakoak, hain zuzen ere. Zerbitzu minimoak oso goitiki ezartzen dituzte garbiketa arloan, eta lekuak gutxi zikintzea dakar horrek", esan du Zelaiak.

### **Udalak balorazio positiboa**

Udalak "balorazio positiboa" egin du, amaitu delako "hainbeste neke" sortu duen gatazka. "Egindako ahalegina handia izan da, bidea gogorra izan da denontzat, baina aurkitu dugu soluzioa eta ahal izan den akordiorik onena lortu dugu", azaldu dute udaleko kideek prentsa ohar bitartez. Horrez gainera, udal korporazioak beharginen grebarako eskubidea guztiz errespetatu duela eta izandako negoziaketetan liskarra saihesteko isiltasuna bidea izan dela azaldu dute.





MARIA ANGELES  
MENDEZ TORRAIRO

Elorrio. Grebalaria

## “Borroka gogorra eta luzea izan da, baina oso pozik gaude lortutako akordioagaz”

### Pozik zaude lortutakoagaz?

Borroka gogorra eta luzea izan da, baina langileok oso pozik gaude lortutako akordioagaz. Hasieran inork ez genuen itxaroten hain greba luzea izatea, baina egoerak honetara eraman gaitu. Elorrioko langileok eskerrak eman gura dizkiegu babesa eman diguten denei, eta, batez ere, ELA sindikatuari. Gainera, uste dugu beste emakume batzuen eredu izango garela, eta, beraz, jakin dezatela horrelako borroketan ondoan izango gaituztela.

**Apiril amaieratik hona greban egon zarete, eta, tartean, hainbat batzar izan dituzue udalagaz eta enpresagaz. Nolako egoera izan da?**

Momentu gogor asko egon dira eta horiek tristura handiagaz bizi izan ditugu. Azkenean, ilusioagaz joaten ginen batzarretara, baina ezer lortuko ez genuela ere pasatzen zitzaigun burutik. Beraz, momentu horiek nahiko gogorrak eta desatseginak izan dira.

### Elorriokoa izanda, nola bizi izan duzu greba?

Herri txikia da eta ez da erraza izan egunero jendearen aurrean egotea, lehen plano horretan egotea. Egia esanda, herritar askok babestu gaituzte, baina beste askoren kritikak ere jaso izan ditugu. Herrian txarto-ulertu asko egon dira eta askok azalpenak ematen ere ez digute utzi.



IDOIA  
BURUAGA BARCENA

Elorrio. Alkatea

## “Herritar guztientzat izan da egoera deserosoa, eta normaltasunera itzultzea denon onerako da”

### Nolako balorazioa egiten duzu?

Udal gobernu hau herrian sortzen diren arazoei konponbidea emateko dago, besteak beste. Horregatik, nahiz eta EULEN enpresako langileak izan, udalak dituen baliabideak zorrotz aztertu ditugu, eta diru publikoari errespetu handia diogunez, aurkeztu genezakeen proposamenik onena egin diegu langileei. ELAK onartuta konpondu da arazoa.

### Garrantzitsua izan da akordioa lortzea?

Jakina. Herritar guztientzat izan da egoera deserosoa, eta normaltasunera itzultzea, zalantzarik barik, denon onerako da. Gatazka hau esku artean izan dugun bitartean, ez ditugu gainerako zereginak alboratu eta orain, hau konponduta, in-

dar handiagoz eutsiko diegu esku artean ditugun beste proiektuei.

### Bidea ez zen erraza izango, ezta?

Bide luzea izan da, baina Elorriorentzat akordiorik onena lortu dugu. Langileen greba eskubidea errespetatuz, herritarrei eskaini behar dizkiegun zerbitzuak ahalik eta txukunenak izaten ahalegindu gara. Hasieran, konponbide bat lortzeko helburu bakarragaz, diskrezioa izan da udalaren jarrera. Azken fasean, herritarrei prozesuaren informazioa helaraztea beharrezkotzat jo genuen, eta bueltan jaso duguna oso positiboa izan da. Gure jarrera ulertu dute, eta eraikinetako erabiltzaileek zein bestelako herritarrek izan duten jarrera eredarria izan da.



## Clase A. Just like you.

Con Mercedes 

Auto bat, hitz eragiten duena eta berari hitz egiteko aukera ematen duena. Ikusi Clase A-k daukan MBUX adimen artifizialeko sistema eta gidatu auto bat, entzun eta erantzuten dizuna eta zugandik irakasten duena. Eta zurea bezalako berezko izaera hedatzeko gai dena.

Clase A 180 d 48 kuotatan.  
7G-DCT aldaketa automatikoa, AMG Line  
eta Premium Paketea dituen.

# 295€/hilean<sup>1</sup>

Renting Complete segurua, bermea eta mantentzea<sup>2</sup>.  
Hasierako diru-ekarpena 10.546;33€<sup>1</sup>.

Ziklo nahasian kontsumoa (l/100Km) : 4,7-5,1.  
CO<sub>2</sub> isurtzea (g/km) : 110-113 (NEDC: 103-106).



<sup>1</sup> Renting-aldibidea Mercedes-Benz Complete-ri esker Clase A 180 d Compacto, 7G-DCT, Aldaketa automatikoa, AMG Line eta Premium Paketea dituen hilean 295 €-ren truke BEZ barne. Sarrera 10.546,33€ BEZ barne, 48 hiletan eta 20.000 km/urtean. Baliozko eskaintza 31 urte baino gehiagoko bezeroentzat, <sup>2</sup> pneumatikoak ez daude barne. Baliozkoa 2019/11/30era arte. Iraunaldia 24 hilabete gutxienez. Mercedes-Benz Complete, Mercedes-Benz Renting S.A.-k komertzializatzen duen marka da. Argazkiko modelo agailu ez dagokio eskaintzari. Informazio gehiago [www.mercedes-benz.es](http://www.mercedes-benz.es)-en

## Aguinaga

Mercedes-Benz kontzesionarioa

Boroa enpresa-parkea, 2A-3 part. 48340 ZORNOTZA. Tel.: 94 630 17 47. [www.aguinaga.mercedes-benz.es](http://www.aguinaga.mercedes-benz.es)



## Iluntzeko txupinazoekin abiatuko dituzte San Fausto jaiak

Pentsiodunek jaurtiko dute txupinazoa udaletxeko balkoitik, gaur, 20:00etan; txosnaguneko Ernaik botako du, Landako Gunean, 21:00etan



Bestalde, mugikortasun arazoak dituztenentzat zenbait gune sortu dituzte jaietako hainbat ekitaldirako. Besteak beste, Andra Marian

**Durango**ko autodefentsa feministak deituta, manifestazioa egingo dute gaur, 23:30ean

egingo diren ekitaldietan gune berezi bat atonduko dute, eta Artopillen banaketan ere irisgarritasun arazoak dituztenei erraztasunak ipiniko dizkiete.

Txupinaren ondoren udaletxean agintari eta herriko zenbait laguntzat egiten ziren harrera eta luntxa murriztuko dituztela azaldu dute Ima Garrastatxu alkateak eta Julian Rios alkateordeak: "Esan genuen herriagaz batera gobernatu gura genuela, eta, beraz, ez dugu logikoa ikusten durangarrak plazan txupinaren zain dauden bitartean, agintariok udaletxe barruan pernila jaten egotea".

Ohiko ekitaldiez gainera, aurten goegitarauak hainbat nobedade dakartza. Bihar, urriak12, Gargar Proba egingo dute Madalena auzoan, eta mingain zorrozdu gazteek parte hartzeko aukera

**Txupinaren ondoren udaletxean egiten ziren harrera eta luntxa murriztuko dituzte**

Udaletxeko txupinazoa eta txupinazo txikia jaurtiko dutenak Ima Garrastatxugaz eta Julian Riosegaz, udaletxeko balkoian.

### DURANGO • JONE GUENETXEA

Dena prest dago Durangon aste biko jaietako hasiera emateko. Motorrak berotzeko, Patxikotxuri ongietorria egingo diote San Fausto auzoan, 17:00etan. Udaletxeko txupinazoa pentsiodunek jaurtiko dute, 20:00etan, udaletxeko balkoitik. Pilar Txintxurretak botako du, hain zuzen ere, eta Matias Oregik eta Carlota Grandek irakurriko dute pregoia. "Berba batzuk esango

ditugu gure aldarrikapenen inguruan", aurreratu dute txupineroek. Urte osoan zehar pentsio duinen alde egindako lana ezagutarazteko aukera izango dute. Jaiak eta aldarrikapena uzartu daitezkeen seinale da hori. Ildo horretatik jaurtiko dute txosnaguneko txupinazoa Ernaiko kideek ere, 21:00etan. Pregoiaren erdigunean "gaztetasuna, jaiak eta borroka" egotea gura dute.

Jaiaren hasieran, aldarrikapen feministak Durango kaleak zeharkatuko ditu. Durango autodefentsa feministak deituta, manifestazioa egingo dute gaur. Andra Mariko elizpean ipini dute hitzordua, 23:30ean.

### Jaietako nobedadeak

Zenbait arazo dituztenei laguntzeko, udalak neurri batzuk hartu

ditu. Besteak beste, urriaren 17an, eguena, 16:30etik 21:00etara ez da musika egongo barraketan, autismoa duten umeak ere joan ahal izan daitezkeen bertara.

Barrakekin jarraituta, orain artean alderdi politikoek harako jasotzen zituzten sarrerak zuzenean Gizarte Ekintzetara bideratuko ditu gobernu taldeak, beharizanik gehien dituztenek gozatzeko.

izango dute. Beste ekitaldi berri-tzaileetarik bat lehenengo talent showa izango da. Ezkurdin antolatuko dute ekitaldia, urriaren 18an, 21:00etan. Eszenagaz lotutako edozein motatako ikuskizunak eskaini ahaliko dira.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2019ko urriaren 11a  
17. urtea - 779. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale

2015 **Bikam**  
Bikam

PEFC  
Produktuaren  
kontrolatutako  
informatzioa  
egia dela, berriketua  
dela eta elkarrekin  
informatzioa  
dialatzen dela  
www.pefc.es

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua





Martitzenean ezohiko osoko bilkura egin zuten Durangoko udalbatzan.

## Datorren urteko zerga eta prezio publikoak orokorrean %1 igotzea onartu du Durangoko Udalak

Ondasun eta Higiezinaren gaineko zergak, TAOak, ibilgailuen zergak eta zabor tasak ez dute igogerarik jasango

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Berba gutxitan, Durangoko zerga fiskalek honako moldaketak izango dituzte 2020an: orokorrean, %1 igoko dira prezio publikoak, baina ez arlo guztietan. Hain zuzen ere, zergak izoztuta mantenduko dira Ondasun eta Higiezinaren gaineko Zergetan, TAOan, trakzio mekanikoko ibilgailuen zergetan eta zaborrari lotutako zergetan. Ordenantza fiskal berria udal gobernu taldearen aldeko botoekin irten du aurrera. PSE-EEK aurkako botoa eman du, eta EAJ abstenitu egin da. Martitzeneko osoko bilkura amai-

tuta, Ima Garrastatxu alkatea pozik agertu zen. "Entzuteko, negoziatzeko eta adosteko gaitasuna dugula erakutsi dugu", esan zuen. EAJko Mireia Elkororibek ere ildo bereetik berba egin zuen. Ordenantza fiskalak eztabaidatzeko gune bat zabaltzea eskertu zion gobernu taldeari, eta adierazi zuen oposizioak ere gerturatzeko borondatea agertu duela. Herriaren Eskubidea taldeko Jorge Varela esanetan, asteon onartutakoak "inoizko" ordenantza fiskalik "justuenak eta orekatuenak" dira. Baina desadostasunak ere egon dira. Hain zuzen, EAJk eta

PSE-EEK hainbat emendakin egin zizkioten udal gobernu taldeak proposatutakoari. Horietako zenbait onartu dituzte eta ordenantza fiskalean islatuta geratu dira. Beste zenbait ezetsi egin dituzte.

### Kirola eta mugikortasuna

Durango Kirola entitateko zergetan, %5 igoko dira prezioak batez beste, eta hor egon dira desadostasunik handienak. PSE-EEKo Jessica Ruizek adierazi du ez duela "igoera justifikatzeko inongo oinarri sozialik ikusten". EH Bilduk erantzun du Durango Kirola udalaren era-

kunde autonomoa den heinean, udalaren dirua jasotzen duela, eta bide horretatik ahaleginduko direla "administrazio publikoentzat aholkatzen den estaldura" tasara heltzen. Bestalde, mugikortasun jasangarriagoa eskaintzen duten enpresentzat zerga hobaria handitzea proposatu du EAJk, baina ez da onartua izan. Lantegietara modu jasangarrian joatea hobariaren bitartez egin barik, "plangintza integral" bat garatzea hobetsi du gobernu taldeak, "bidegorri sare batez eta norbanako erabiltzaileengan pentsatuta", azaldu du.

## Ekainean atxilotu zituzten grebalari biek Durangoko epaitegian deklaratu dute

**DURANGO • JOSEBA DERTEANO**

Metalgitzaren ekaineko lehenengo greba deialdiaren harira, Erztaintzak lagun bi atxilotu zituzten Zornotzako Aludium enpresaren aurrean izandako liskarretan, autoritateari eraso egin izana egotzita. Ondoren, kargupean libre utzi zituzten. Lagun bi horiek Durangoko Epaitegian deklaratu zuten martitzen goizean, eta greba deialdia egindako sindikatuak epaitegi aurrean batu ziren haiei elkartasuna adierazteko.

### Eskubideak "defendatzea"

Testu bat irakurritz amaitu zuten elkartasun kontzentrazioa. "Grebalarri biei eta egun hauetan modu batera edo bestera gatazka honetan errepresioa jasan duten guztiei gure babes osoa adierazteko bildu gara. Argi eta ozen esan gura dugu gure eskubideak defendatzea ez dela inoiz ere delitua izango", adierazi zuten grebara deia egindako sindikatu guztiek adostutako testuan.

Metalgintza arloko hitzarmena lortzeko borrokan jarraitzeko asmoa erakutsi zuten. "Ez dugu pauso bakar bat ere atzera egingo. Harro gaude enpresetan, piketetan eta mobilizazioetan egindako lanagaz", adierazi zuten.

## Berton Bertokoa dinamikak elikadurari buruzko Bilboko topaketetan izandako esperientzia azaldu du

Joan zen astean eskola elikadura osasungarri eta iraunkorrari buruzko topaketetan parte hartu izanak "indarra" eman diela diote

**DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA**

Eskeziakoek, Kanarietakoek, Aragoikoek eta Italiakoek. Euskal Herrikoek gainera, nazioartetik ailegatutako hainbat eragilek Bilbon egin zuten bat eskola jantokiei buruzko esperientziak partekatzeke, eta bertan izan zen Durangaldeko Berton Bertokoa ere. Han ikasitakoak "jantoki eredu aldatsen segitzeko indarra" eman diela azaldu du Zabalarra eskolako Berton Bertokoa elkarreko Iolanda Azkaratek: "Gizarte mugimenduetan zein eskoletako guraso elkarrekin, elikadurak geroago eta kezka eta inplikazio handiagoa sortu duela ikusten gabilta".

Ikasitakoaren adibide lez ipini dituzte, besteak beste, Aragoi eta Valentzia. Lehenengoaren kasuan, 11 jantoki berri eraiki dituzte eskoletan aurten, guraso taldeen eta gobernuaren akordioagaz. Valentzian, eskola jantokietan ematen den elikagai kopuruaren %40 bertokoa izan behar dela ikasi dute. "Esperientzia batzuetan, gobernuak doaz aurretik. Beste batzuetan, herri mugimenduak. Gu, zelanbait, erdian gaude. Oraindino ez dugu gure eskoletan sukaldari ipintzea lortu, baina gauzak pil-pilean daude. Gure politikarrietako batzuk jardunaldietan parte hartzen ikusi ditugu", esan du Azkaratek.

## Amankomunazgoko presidentearen soldata %20 inguru igoko dute legealdi honetan

Mireia Elkororibek (EAJ) aurreko legegintzaldiko Aitor Lopez presidenteari (EH Bildu) baino 10.000 euro gordin gehiago jasoko ditu. Esku artean duen ardurarekiko igoera "proportzionala eta orekatua" dela defendatu du. Igoerak EAJren eta Abadiñoko Independenteen babesaren izan du

**DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA**

Amankomunazgoko presidenteari aurreko legegintzaldian baino 10 bat mila euro gordin gehiago jasoko ditu aurrerantzean. Asteon egin dute Amankomunazgoko biltzarra. EAJk eta Abadiñoko Independenteei igoera babestu dute. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak, ostera, aurka bozkatu dute. Aitor Lopez EH Bilduko biltzarkide eta aurreko legegintzaldiko presidenteari adierazi du orain arteko soldata "duina" zela, "altua, eta herritarrenganako erantzukizunari lotua". Igoera ez dagoela "justifikatuta" azaldu du, eta ez duela ulertzen zergatik gertatzen diren gorabeherak soldatetan. Gogora ekarri du EH Bildu eta Herriaren Eskubidea agintara ailegatu



zirenean jaitsi egin zutela soldata, eta orain berriro igo dela. Neskutz Rodriguez Herriaren Eskubidea taldeko ordezkaria ere soldata igotzearen kontra agertu da. Atzerapen ekonomiko berri bat "mehatxuka" dagoela azaldu du, eta diruak baliabide sozialak indartzera joan beharko lukeela proposatu du.

Elkororibek presidenteari erabakia defendatu du. Azaldu du igoera esku artean dituen "erantzukizuneko proportzionala eta orekatua" dela, eta Aitor Lopezek erantzun dio haren agintaldia hasi zenetik ere izan zirela igoerak. Foru Aldundiaren irizpide batzuk oinarri hartu dituzte soldata ezartzeko.



# “Durangaldean eta euskal dantzetan orokorrean egin den bidea oso positiboa da”

Oier Araolaza antropologo eta dantzariak berbaldia eman du lurretan, asteon

**IURRETA • JONE GUENETXEA**

Oier Araolazak dioenez, euskal emakumeak tradizioan ez direla dantzatu dioen topikoa XX. mendera arte egon da indarrean euskal kulturaren. Eibartarrak tesia egin du gaiaren inguruan.

**Noiztik egin izan da nesken eta mutilen dantzen bereizketa hori?**

XX. mende hasieran aldaketa batzuk gertatu ziren genero ikuspegian, gizartean oro har, genero sistema ulertzeko moduan. Hor asko bultzatuko dira binarismora jotzen duten ikuspegiak. Gizon eta emakumeak biologikoki oinarrituta, guztiz bereizten dituzten ikuspegiak nabarmenduko dira. **Genero ikuspegitik, zein zen egoera XX. mendera arte?**

Tesi erdi behar izan dut galdera horri erantzuteko. Arriskua dago horren aurretik zegoen egoera berdintasun egoera batez parekatzeko, eta ez da horrela. Antzinako erregimenean misoginia indartsu bat dago, baina testuinguru horretan, sexuak, kategoria legez, bere garrantzia zeukan gizartea sailkatzeko, baina beste kategoria batzuekin etengabeko negoziazio batean. Emakumeek aureskua egiten zuten, baina ez gizonen espazio edo botereguneetan. Emakumeek euren momentuak eta dantzatzeko aukerak zituzten. Binarismoa atzerapauso izango da zeinbait espaziotan emakumeen dantza adierazpenerako.



**Orain gutxira arte, gizonen dantzari dantzaren irlanderek baino protagonismo handiagoa zuten plazan.**

Hori gertatzen da oinarrizko kontzeptu bat defendatu delako: "Desberdinak gara eta desberdin egiten dugu". Desberdintasuna justifikatzea da desberdinkeria iristeko lehenengo pausoa. Zerbait desberdina dela esaten dugun momentutik, desberdintasun hori jerrarkizatzeke eta bata bestea baino hobea dela esateko arriskua dago. **Genero ikuspuntutik, aurrerapauso handiak gertatu dira dantza arloan.** Durangaldean eta euskal dantzetan orokorrean egin den bidea oso positiboa da. Batzuek apustu zintzoa egin dute, eta, hurrengo fa-

sera pasatu aurretik, ahalegin hori egin zutenei merezi duten errekonozimendua aitortu behar zaiela pentsatzen hasi beharko genuke. Olatuak indarra hartu duenean, errazagoa da olatu hori hartzea, korronea kontrari datorrenean baino. Pertsona batzuek egin duten lana eta erakusti duten kementa aitortu beharko genuke. Gai hau mahai gainean inork ere ipini ez zuenean, ausardiaz eman zuten pausoa, baina inork ere ez ditu go-goan hartu. Azken txanpan sartu direnek, ostera, oihartzun guztia hartu dutela ematen du. Gauza hauekin zintzo jokatu behar dugu, ez direlako gai errazak, eta batzuk mintu egin daitezkeelako.



2014an ospatu zuten azken Urriena Lurretan.

## Emakumezkoek Dantzari Dantza egingo dute lurretan Urrienen, aurten lehenengoz

1989an antolatu zen lehenengoz herriko dantzariak batzen dituen Urriena jaialdia

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Urriena ospatuko dute bihar lurretan, herriko dantzarien jaiegun handia. Aurten, gainera, emakumeak alkandora-praka zuriak jantzita irtengo dira plazara, Dantzari Dantza egiteko. 2014an parte hartu zuten lehenengoz emakumeek Urrienen, gorulari dantzekin. Orain, pauso bat gehiago eman dute jaialdi "parekide, bizi eta herrikoia" lortzeko bidean. Bost urteotan emakumeek egin-dako aurrerapausoak "naturaltasun osoz" eman dira jaietan, eta

horiei naturalki jarraitzea baino ez du egin Urriena batordeak.

Belakortu zerrategiko aparkalekuan argazkiak egingo dituzte, 09:15ean, eta 10:15ean kalejira hasiko da. Dantzari Dantza eta Goru-

**Dantzari Dantza eta Gorulari Dantza egingo dituzte, 11:00etako meza ostean**

lari Dantza egingo dituzte 11:00etako meza ostean. Saioan, 65 urtetik gorako dantzariak omenduko dituzte. Andra eta gizonen Soka Dantza egingo dute gero. Bazkaria eta erromeria ere antolatu dituzte.

## "Ikuspuntu desberdinak partekatzeko aukera izan dugu, eta piloa ikasi dut"

Haur eta gazte literaturako Euskadi Sarian epaimahakide izan da Onaindia



**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

*Korri, Kuru, korri!* lanagatik Euskadi Saria eman diote Patxi Zubizarretari, Haur eta gazte literaturako lanen atalean, eta epaimahaiko kideetarikoa bat Ziortza Onaindia iurretarra izan da, ALDEE (Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkarte) elkarte ordezkaritza lez. Lehenengoz egin du lan hori eta oso esperientzia aberasgarria izan dela dio. "Ikuspuntu desberdinak partekatzeko aukera izan dugu, eta piloa ikasi dut. Askok

irakurtzera derrigortu gaitu eta polita izan da", gaineratu du.

Idazlearentzat "pizgarri handia" izanik, ardura handia izan dela onartu du iurretarrak: "Baina sortutako zalantza txikiak konponduta, argi izan dugu saritua". Idazleak kontakizunari eman dion "egitura narratibo aberatsa" saritu du epaimahaia. Diotenez, "erreferentzia kultural aberatsak oharkabean eskaintzen dizkigu, euskal kulturaren parte direnak ere hari horretara maisuki ekarritik".

## Tailerrak, zinema eta euskaraokea Etxegon

Herriko gazteei zuzenduta, IUGazte programaren barruan ekitaldi sorta antolatu dute udazkenerako

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Lurretako Etxegon ekitaldi sorta antolatu dute gazteentzat udazkenerako. IUGazte programaren barruko egitaraua da eta abenduaren 20ra arte iraungo du.

Musika, sukaldaritza eta makillaje tailerrak, ping-pong txapelketak, zine emanaldiak eta euskaraokea egongo dira, besteak beste, Etxegon, gabonak heldu bitartean. Jarduera hauek guztiak barikuetan eskainiko dituzte

Etxegon, 17:00etatik 20:30era bitartean, hain zuzen ere.

**Truke azoka**

Urriaren zehar, sukaldaritza tailerra, zinema eta beldurrezko makillaje tailerra egongo dira. Azarorako, bestalde, Just Dantz & Euskaraokea, sukaldaritza tailerra eta ping-pong txapelketa antolatu dituzte; zinema ere bai. Abenduan, sukaldaritza eta truke azoka izango dituzte Etxegon.





Abadiño Sagasta auzoa.

## Abadiño Udalak OHZ zerga izoztea proposatuko du ezohiko bilkuran

OHZ zerga izoztea eta gainerako zergak %1,5 igotzea proposatuko duten ezohiko bilkuran

**ABADIÑO • A.M.**

Urriaren 17ko ezohiko bilkuran, Abadiño Udalak OHZ zerga izoztea eta gainerako zergak %1,5 igotzea proposatuko du. EH Bilduren berbetan, Durangaldeko "altuenak" izaten jarraitzen dute, eta, hori dela eta, neurria "ez da nahikoa" eurentzat.

EAJk eta Aik osaturiko udal gobernuaren esanetan, proposamenagaz "zerbitzuen kalitatea mantendu gura da, hainbat urtean tasak eta zergak eduki ondoren". Proposamenak, alokairuko etxebizitzaren kasuan, hobariak barnebil-

tzen ditu; %50eko hobaria eduki daiteke. Bestalde, ibilgailuen gaineko zergen kasuan ere hobariak egongo direla aipatu dute; ibilgailu historikoen, elektrikoaren eta hibridoaren kasuan ezarriko dituzte.

### Aldaketa indizean

Era berean, 2020rako ordenantza fiskala aldatzeko proposamenak balio katastralari aplikatzen zaion indizearen jaitsiera bat dakar. 180.000 eurotik gorako balio katala duten etxebizitzek %0,25eko Ondasun Higiezinaren gaineko zerga ordaindu beharko dute, orain arte

ordaindu behar zen %0,32 beharrean. Abadiño EH Bilduren berbetan, udal gobernu taldeak proposaturiko jaitsiera ez da nahikoa. "Iaz, udalak 2.000.000 euro bildu zituen OHZren bitartez. Proposamen berriagaz, 33.000 euro gutxiago bilduko dituzte, eta, beraz, aldaketa ez da hain handia". EH Bilduren proposamenaren arabera, 180.000 euro baino gehiagoko balio katala duten etxeen kasuan, %0,22ra arteko jaitsiera egin beharko litza-teke; hortik beherako kasuetan, oster, %0,25etik %0,18ra egitea proposatzen dute.

## EH Bilduk Abadiño jolasguneen egoera salatu du

Muntsartzeko, Zelaietako eta Matienako jolasguneetako zenbait elementu apurtuta daudela diote, besteak beste

**ABADIÑO • ARITZ MALDONADO**

Abadiño EH Bilduk Muntsartzeko, Zelaietako eta Matienako jolasguneen egoera salatu du ohar batean: "Zorua altxatuta edo hondatuta dauzkaten guneak ditugu, eta zenbait parketan hainbat elementu apurtzeaz daude". EH Bilduk Abadiño Udalari egotzen dio jolasguneak erabilgarri ez egotea. "Udalak herriko jolasguneetako segurtasun baldintzak bermatzeko betebeharra du, baina, sarri askotan, baldintza horiek

ez dira betetzen, eta horrek egoera arriskutsuak eragiten ditu", adierazi dute.

EH Bilduren ustetan, egoera konpontzeko, jolasguneetarako ekintza plana prestatu beharra dago. "Herriko haur eta gazteek gune seguru eta erabilgarriak izan ditzaten, beharrezkotzat jotzen dugu prebentziozko mantentze-plan bat gauzatzea, guneen jarraipen egokia eginez eta plana garatzeko beharrezkoak diren bitartekoak eskainiz", esan dute.



Muntsartz auzoko jolasgunea.

## Izurtzan, herrigunetik Bitaña auzora doan bidea konpontzen dabilta

Iazko euriteek kalteak eragin zituzten bide horretan; hegal batean, harri handiekin harresi bat egiten dabilta, gune horretan berriro lur-jausirik gertatu ez dadin

**IZURTZA • J.D.**

Iaz izandako euriteek kalteak eragin zituzten herrigunetik Bitaña auzora doan bidean. Bideko hegal batean lur-jausia eragin zuten, hain zuzen ere. Oraintsu, bide hori konpontzen hasi dira. Lehenengo egunetan, bide zati hori itxita egon zen, baina joan zen astetik zabalik dago eta auzotarrak handik pasatu daitezke. Besteak beste, bide alboan harresi bat egiten dabilta, berriro lur-jausirik gertatu ez dadin eta bidea bera konpondu dute.

Lan horien ondoren, eta proiektu beraren barruan, Izurtzako auzoetako beste bide bitan ere egingo dituzte konpontze lanak, udal ordezkariak azaldu dutenez.



Bitaña auzorako bidean lanak egiten dabilta.

## Atxondon plenoak arratsaldean egitea eskatu du EH Bilduk

Legegintzaldi berriagaz batera, plenoak hileko lehenengo martitzenetan egiten dituzte, 09:00etan

**ATXONDO • AITZIBER BASAURI**

Legaldi berriagaz batera, aldaketak etorri dira Atxondora. Horietako bat udalbatzarren ordutegia izan da. Orain arte, arratsaldean egiten zituzten, baina udal gobernu berriaren lehenengo aldaketak bat goizetara pasatzea izan da, hileko lehenengo martitzenetan, hain zuzen ere, 09:00etan.

Azken udalbatzarretan, bilkura arratsaldera pasatzeko eskaria egin zioten EH Bilduko kideek gobernu taldeari. "Parte hartzea bultzatu gura badugu, ezinbestekoa da plenoak arratsaldera pasatzea, goizean oso herritar gutxi etorri daitezke eta", esan zuen Igor Olaetxea EH Bilduko zinegotziak joan zen asteko plenoan. Horrez

gainera, plenoak arratsaldetan egiteko ea kanpaina bat martxan ipini behar duten galdetu zioten oposizio kideek alkateari.

Olaetxeari erantzunez, Gorra Garate alkateordeak esan zuen

**Plenoak arratsaldetan egiteko ea kanpaina bat martxan ipini behar duten galdetu dute oposizio kideek**

gobernu taldea "pentsatzen" dabilela. "Badakigu plenoa akto zabala dela, baina partiduen arteko interakzio bat da. Herritarrek ezin dute iritzia eman", esan zuen Garatek.



# Kultur Etxearen proiektua Las hermanas eraikinera igarotzeko asmoa kritikatu du EH Bilduk

Iraileko osoko bilkuran, udal gobernuak Osakidetzagaz negoziatzen dabilela onartu zuen. "Negoziazioen ondoren adieraziko dugu zein den gure erabakia. Aukerarik onena hobetsiko dugu"; EH Bilduk jeltzaleen jarrera salatu zuen, "arduragabekeriagatik"

**ZALDIBAR • A.M.**

Kultur Etxearen gabezia auzi historikoa bihurtu da Zaldibarren. Izan ere, hainbat legegintzaldi daromatxate irtenbidea topatu guran, baina adostasunera heldu barik. Aurreko legegintzaldian proiektua bideratuta zegoela zirudien arren, iraileko osoko bilkuran udal gobernuaren jarrera salatu zuen Zaldibarko EH Bilduk. "Guretzat arduragabekeria da proiektuaren fase honetan gelditu uztea", adierazi

**Atelier 80 arkitektura estudioak idatziriko proiektuak irabazi zuen ideia lehiaketa**



du Eneritz Azpitarte EH Bilduko zinegotziak. Iraileko osoko bilkuran esandakoaren arabera, udal gobernuak Osakidetzagaz negoziatzen dabil, kultur etxea Las hermanas eraikinean egiteko, Sanjoangoa baserrian barik. "Aukerarik onena hobetsiko dugu", adierazi du udal gobernuak. Alderdi subiranistari "salagarria" iruditzen zaio proiektua geratzea. "Azken urteetan ez du zue ezer ere esan, eta orain, gobernura heldu berritan, proiektu hau

gelditzea eta bestelako aldaketak proposatzea ez dugu egoki ikusten", adierazi du EH Bildutik.

Las hermanas eraikina herriaren erdigunean dago, eta Sanjoangoa, ostera, Alde Zaharrean. Kultur etxea Sanjoangoan eginda, EH Bilduren udal gobernuaren asmoa herrigunea zabaltzea zen: "Alde Zaharra eraberritzeko pauso bat li-

**Kultur etxea Alde Zaharreko eraikinean egitea gune hori eraberritzeko pausoa zen**

Udalak iaz eman zuen Sanjoangoa proiektuaren berri.

tzateke". PSE pozik agertu da oraingo aldaketagaz.

**Apirilean esleitua**

2017an, 150.000 euroko inbertsioa onartu zuten proiektu honetarako. Horietako 100.000 inguru Atelier 80 arkitektura estudioak idatziriko proiektuan gastatu zituzten. Eurek irabazi zuten ideia lehiaketa.

**Mañarian, leize-hartzaren erakusketa inauguratuko dute astelehenean**

**MAÑARIA • J.D.**

Astelehenean, 12:00etan, Mañariko Hontza Museoko erakusketa berria inauguratzeko ekitaldia egingo dute. Hainbat erakundetako ordezkariak gonbidatu dituzte ekimenera. Erakusketa berriko protagonista leize-hartzaren eskeleto bat izango da. Espezie horretako hartzak orain milaka urte bizi izan ziren European. Hartzaren gaineko datuak emango dituzten panel informatiboekin osatuko dute erakusketa.

**Pilar Zubiaurreri eta feminismoaren aitzindariari buruzko antzezlanaren Garain**

**GARAI • JOSEBA DERTEANO**

Urriaren 19an, 19:30ean, Lyceum Club izeneko antzezlanaren ikusi ahalko da Garaiko Elizabarrin. Estatuko lehen klub feminista sortu zuten lau emakumeri buruzko antzezlanaren da. Pilar Zubiaurre (1884-1970, Garai) da eurretarako bat. Garaitarrek izango dute lehentasuna sarre-rak lortzeko: urriaren 14tik 17ra eskuratu ahalko dituzte, udaletxean, bost eurotan.

# Emakunderen autobusa Otxandion izango da gaur, herritarrak berdintasunaren inguruan kontzientziatzeko

Berdintasunaren arloan lanean dabiltzan herriko eragileek euren ekintzak egiteko erabiliko dute autobusa



Abenduaren 13ra bitartean, Emakunderen autobusa Euskal Herriko herrietatik ibiliko da.

**OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO**

Emakunderen ikasturte honetako Berdintasunerako Gunea ekimena abiatu du asteon. Egitasmo horren barruan, berdintasunerako autobusa Euskal Herriko herrietatik

ibiliko da datozen hiru hileetan, eta Otxandio da autobusak bisitatuko duen lehenengo herrietarikoa. Gaur, egun osoan zehar, plazan egongo da eta herriko eragileen topagune bihurtuko da.

Esaterako, goizean zehar, herriko eskolako Lehenengo Hezkuntzako hirugarren mailatik seigarrenera arteko umeekin sentsibilizazioaren arloko dinamika egingo dituzte.

**Formakuntza saioak**

Berdintasun Gunea Otxandion egongo dela aprobetxatuta, Sortzen berdintasun aholkularitzaren bitartez, berdintasunari buruzko hiru formakuntza saio antolatu dituzte. Herriko edozein emakumeri parte hartu dezake saio horietan.

Lehenengo saioa gaur arratsaldean bertan izango da, Berdintasun Gunean. Berdintasunaren inguruko gaiak jorratuko dituzte. Hurrengo saio biak urriaren 25ean eta azaroren 15ean izango dira. Ordutegia 18:00etatik 20:00etara izango da.

Emakunderen Berdintasun Gunea egitasmoak 16. aldian egingo du aurrean eta berdintasunaren alde egiten dutenen lana indartzea, ikustaraztea eta sendotzea dira helburu nagusiak.

**Txalapartaren gaineko berbaldia eskainiko dute, bihar, Otxandion**

**OTXANDIO • J.D.**

Gerediaga Elkarteak antolatzen duen Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, ekitaldi bikoitza antolatu dute zapatarako. Lehenengo, Soinuena folk eta musika tradizionalaren museoak gomendatuta, Bihotx taldeko neskek txalapartaren historia eta zenbait joeren gaineko berbaldia emango dute, eta parte-hartzaileentzat tailer bat garatuko dute. Ondoren, Otxandioko Soinubil kantu taldeagaz, kanta-kalejira egingo dute, herriko kanta zaharrak ezagutzeko eta Euskal Herriko betiko kantutegikoak gogoratuz. Otxandioko plazan ipini dute hitzordua, 18:00etan. Ekimenerako izen-ematea helbide elektronikoa honetan egin daiteke: [ejardumaldiak@gmail.com](mailto:ejardumaldiak@gmail.com).



## Eneko Atxak jatetxe berria zabaldu du Lisboan

Proiektu berriak proposamen bi batzen ditu bere barruan: 'Eneko Lisboa' da bata, eta 'Basque', bestea



Eneko Atxa sukaldaria, Lisboan zabaldu berri duen jatetxearen barruan.

### ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Eneko Atxa sukaldari zornotzarrek beste leku bat gehitu du munduan barrena sakabanatuta dituen hirien zerrendara: Lisboa. Oraintsu, jatetxe berria zabaldu du Portugalgo hiriburuan. Eskaintza bakarreko jatetxea izan beharrean, baina, proiektu bi barnebiltzen dituen jatetxea da. Zehazki, *Eneko Lisboa* eta *Basque* izeneko proiektuak garatuko ditu han. Lehenengoari dagokionez, Larrabetzuko Azurmendi jatetxean ere dastagai dituen hainbat plater eramango ditu Lisboara, beste zenbait plater berrigaz batera. Lisboako hiritarrek *Erroak* eta *Adarrak* izeneko menu bi dastatu ahalko dituzte aurrerantzean. *Basque* izeneko proiektuan, oster, ukitu arinagoa duen sukaldaritz eskainiko du Atxak. Hain zuzen ere, tapen estiloa baliatuta, lagunartean partekatzeko aproposak diren platerak eskainiko ditu. Azurmendi jatetxeko iturriek aditzera eman dutenez, jatetxeagaz "sukaldaritz esperientzia abegikorra" gerturatu gura du Eneko Atxak Portugalgo hiriburura.

### Ibilbide oparoa

Atxak 2007an jaso zuen bere lehenengo Mitxelin izarra. Ordutik hona, sukaldari zornotzarrek ibilbide oparoa egin du eta bost izar eskuratu ditu guztira. Larrabetzuko Azurmendi jatetxean hiru ditu, eta bana Bilboko Eneko Bilbao jatetxean eta bere izena daraman Larrabetzuko Eneko jatetxean.

## Nañon-ek mendi ibilaldia antolatu du Urkiola ingurura

Esti Sarrionandia Areitio biologoaren eskutik, parke naturaleko inguruak ezagutuko dituzte, Urkiolako Santutegian hasi eta Oleta inguruan amaituko den ibilaldian

### ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Nañon Zorrontzan Euskaraz elkartek euskara eta natura uztartzen dituen irteera antolatu du Urkiolara zapatu goizerako. *Poesiaren Bideak* da ekimenaren izena, eta bertan parke naturaleko inguruak ezagutuko dituzte, Esti Sarrionandia Areitio biologo zornotzarren eskutik.

Urkiolako Santutegi atzetik irten eta Oletarako bidea egingo dute. Bidean, lau-bost lekutan geratuko dira Sarrionandiaren azal-

penak entzuteko. Zornotzarrengan interes berezia sortu duen ekimena dela azaldu dute Nañon elkartekoei. Izan ere, bete da izena emateko zerrenda. Autobusean 55 lagunentzat zuten tokia, eta dena bete da.

**Zornotzarrengan interes berezia sortu duen ekimena da; bete da izena emateko zerrenda**



Bidean zehar hainbat geldialdi egingo dituzte.

## Auzo ibilbide batek Mallabian eginda dauden produktuak ezagutaraziko ditu

Mallabiko Berbalagunek herriko ume zein helduentzat antolatutako ekimena da, eta urriaren 19an izango da; besteak beste, antzinako tresnen museoa bisitatuko dute, Trabakuan

### MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Urriaren 19an ekingo diote ibilbideari, 10:00etan, udaletxe pareko aparkalekutik irtenda. Herriko euskaldunak hartu-emanetan ipintzea eta Mallabiko kultura, artea eta elikagaien inguruko ekoizpena ezagutaraztea dira helburuak. Horrela, besteak beste, Trabakuan antzinako tresnen museoa ezagutuko dute, Enrike Mugarzaren eskutik. Ondoren, Berano inguruko zuhaitz motxeko basoetara joango dira eta Valentin Mugarzak mota horretako zuhaitzei buruz emandako azalpenak jasoko dituzte.

Ekimenak udalaren babesa du eta Mallabiko eskolako umeek parte hartuko dute. Izen-ematea eskolan eta liburutegian egin daiteke.



Iazko ibilaldian parte hartu zuten mallabitarrak, herriko gazta ekoizle baten baserrian.

## Herriko merkataritza indartzeko, Elorrión 1.000 bonu ipini dituzte herritarren eskura

### ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herriko merkataritza bultzatzeko asmoz, Elorrioko Merkataritza Elkartek (EME) eta Elorrioko Udalak *Elorrixon Dendarik Denda* kanpaina martxan ipini dute. Prentsa ohar bitartez jakitera eman dutenez, 1.000 deskontu txartel ipiniko dituzte herritarren eskura. Deskontu-txartelak 20 euroko prezioa eta 30 euroko balioa izango dute. Hauek eskuratu gura dituzten herritarrek Turismo Bulegora joan beharko dute, urriaren 14tik aurrera.

"Kanpaina honegaz, erosketak herriko merkatu txikietan egitea lortu gura dugu", adierazi du Maria Herrero alkateordeak. Bestalde, kanpaina honek mundu guztiari egiten diola "mesede" esan dute EMEko ordezkariak.

## Berrizko Udalak amaitutzat eman ditu Legañoako arrapalen obrak

### BERRIZ • JONE GUENETXEA

2018ko aurrekontu parte-hartzaileetan, Legaño 2 eta 3 atarien eta Legaño 1eko garaje estalduran dagoen erabilera publikoko plataforman, plazaraino lotura malda bat egiteko premia jaso zuen Berrizko Udalak, eremu horren irisgarritasuna bermatzeko. Arrapala ipintzeko lan hauek irailean zehar egin dituztela aurreratu du udalak.

Obraren esleipen-aurrekontua 19.150,34 eurokoa izan da. Lehenengo fasea 2018an burutu zuten, eta eremu bitan ipini zituzten arrapalak, bertan zehar mailak gainditzeko. Gaur egun, arrapalek garajeetarako eta plazatxorako sarbidea bermatzen dute. Hartara, eremu osoaren irisgarritasuna dago bermatuta.



# Durango mugimendu feminista: emakumeen borrokaren aniztasunaren isla eta eskualdeko feminismoaren taupada

Hanka bat kalean eta beste bat instituzioetan izanda, izaera poliedrikoa hartzen duen mugimendu feminista da Durangokoa; eskualdean pisua duena



**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Azaroa hasteagaz batera, Euskal Herriko mugimendu feministaren hiriburua bihurtuko da Durango. Herriak Euskal Herriko Jardunal-

di feministen bosgarren edizioa hartuko du, eta bazter guztietatik ailegatutako 2.000 emakumek baino gehiagok bat egingo dute bertan. Testuinguru hori aurrean

izanda, eskualdeko mugimendu feminista aztertuko duen sail bat hasiko du berripaper honek gaur. Durango mugimenduaren erradiografia egingo du lehenengo atal honetan, eta gauza bera egingo du eskualdeko gainerako herriekin hurrengo aleetan.

## Durango, lehen geltokia

Durango herrian pil-pilean dagoen mugimendua da feminismoa. Oldarkorra eta aldarrikatzailea zenbaitetan, malguagoa beste zenbaitetan, baina, anitza, zentzurik zabalenean.

## Andragunea, emakumeen prestakuntzarako tresna instituzionala

- **Sorrera urtea:** 2009
- **Izaera:** Durango Udalak kudeatutako espazioa, Durango Plataforma Feministaren eskariatatik sortua.
- **Helburu nagusia:** Emakumeen topalekurako eta presta-

kuntzarako lekua eskaintzea. Gizon eta emakumeen arteko berdintasun harremanak erraztea.

- **Eskaintzen dituen tresnak:** Informazio puntua, jabeakuntza eskola, liburutegia, irakurketa taldeak edo hitzaldiak.
- **Partaide kopurua:** 550-600 gizon-emakume.
- **Kontaktua:** 944657092 eta [andragunea@durango.eus](mailto:andragunea@durango.eus)

## Antolatu barik dauden emakumeentzako lekua, M-8 asanblada

- **Helburu nagusia:** Martxoaren 8ko ekitaldiak koordinatzeko eta erabakitze espazioa sortzea.
- **Izaera:** Izenak dioen moduan, asanblada bitartez funtzionatzen du. Egitura lineala

duela da bere ezaugarri nagusia. Bertan batzen diren emakumeek abiapuntu bera dute.

- **Berezitasuna:** Asanbladan, egitura feminista antolatuetan diharduten emakumeek zein inongo egituratan antolatuta ez daudenek bat egiten dute. Asanblada zabala da, eta antolatu barik dauden emakume askok aldarrikapenak egiteko aukera bat ikusten dute bertan.

## Kalea, herri mugimenduetatik sortutako kolektiboen oihu bateratua

### Durango Bilgune Feminista

#### EUSKAL HERRITIK, DURANGORA

- **Sorrera urtea:** 2002. Euskal Herriko Bilgune Feminista sortu zen urtean bertan eratu zen Durango ordezkaritza.
- **Helburu nagusia:** Boterea hartzea. Mugimendu sozialetan feminismo eragitea eta horretarako sare bat sortzea.
- **Ekintzak:** Urte osoan zehar. San Fausto jaietan txosnagunean eragitea. Ekainaren 28an 'irakurraldi feminista' egitea, feminismo bolleroa indartzeko.
- **Bilera maiztasuna:** Astelehenero, 19:00etan
- **Kontaktua:** [durangkobf@gmail.com](mailto:durangkobf@gmail.com) helbide elektronikoa

### Batukandra

#### ERALDAKETARAKO DANBOR HOTSA

- **Sorrera urtea:** 2010-2011. Silvia Palumbo Jaime musikari eta ekintzaile lesbiana feministak sortu zuen Andraguneko kideekin batera.
- **Helburu nagusia:** Aldarrikapen feministak musikaren bitartez egitea, modu alai eta dibertigarrian.
- **Ekintzak:** aldarrikapen feminista eta sozialetan jotzea. Bai festa egiteko, eta baita gertakariaren baten aurrean elkartzatzen adierazteko ere.
- **Bilera maiztasuna:** Barikuro.
- **Kontaktua:** [batukandra@gmail.com](mailto:batukandra@gmail.com)

### Andereak

#### JABEKUNTZA ETA ORIENTAZIOA

- **Sorrera urtea:** 2005.
- **Helburu nagusia:** Indarkeria matxista salatzea eta horri aurre egiteko bideak jorratzea.
- **Eskaintzen dituen tresnak:** tratu txar fisiko, psikologiko edo sexualak jasaten ari diren edo jasaten ari direla uste duten emakumei laguntza, informazioa eta orientazioa eskaintzea. Hitzaldiak antolatzea.
- **Bilera maiztasuna:** Eguenero kontzentrazioa egiten dute Andra Marian.
- **Kontaktua:** [andereak@hotmail.com](mailto:andereak@hotmail.com); 688 871 627 (laguntza sozialeko boluntarioen telefonoa)

### DAFA asanblada

#### ERASOEN AURREAN, AUTODEFENTSA

- **Izen osoa:** Durango Auto-defentsa Feminista Asanblada (DAFA)
- **Sorrera urtea:** 2018
- **Helburu nagusia:** Eraso matxistei aurre egiteko eta erasoak prebenitzeko emakume sarea sortzea. Heteropatriarkatu kapitalistak eragiten dituen ondorioei aurre egitea.
- **Bilera maiztasuna:** Eguazten birik behin, Pinondo Etxean, 19:00etan.
- **Facebook orria:** [Durango Auto-defentsa Feminista Asanblada](https://www.facebook.com/DurangoAutoDefentsaFeministaAsanblada)

### AL NOUR elkarte

#### PARTE HARTZEA, INTEGRAZIOA HELBURU

- **Sorrera urtea:** 2008
- **Helburu nagusia:** Emakume musulmanak euskal gizartearen parte hartzera bultzatzea eta integratzen laguntzea.
- **Eskaintzen dituen tresnak:** Hizkuntza da emakume musulmanen traba nagusia herrian integratzerako orduan. Gaztelania ikastaroak eskaintzen dituzte barikuro Pinondo Etxean. Euskal kultura ere lantzen dute.
- **Partaide kopurua:** 30 inguru.
- **Kontaktua:** [www.mujiressalnoun.org](http://www.mujiressalnoun.org) eta [bizkaia@mujiressalnoun.org](mailto:bizkaia@mujiressalnoun.org)

### ONEKA plataforma

#### ETORKIZUNeko SORRERA BERRIA

- **Egoera:** 2018an Hego Euskal Herriko emakume pentsiodunek sortu zuten plataforma. Durango eta eskualdean, oraingoz, ez du egitura antolaturik. Durangaldeko pentsiodunen taldeko emakume batzuek AN-BOTORi adierazi diotenez, etorkizunean litekeena da Oneka eskualdean antolatzea.
- **Etorri litekeen lan ildoak:** Gizon eta emakumeen arteko pensio arrakala amaitzea, alar-guntasunari eta bakardadeari aurre egitea.



Feminista talde batek dantza eginda eskatu zuen Garate zinegotziaren dimisioa.

## Lau gako nagusi Durango mugimendu feministaren bilakaera ulertzeko

Gaur egungo uholde feminista indartsua den arren, oztopo askori egin behar izan diote aurre bidean

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

**OFELIA HERNANDEZ.** 2005eko urtarrilaren 15a data beltza da Durango. Felipe Ardanzak Ofelia Hernandez hil zuen. Herrian eragindako samin hartatik, Andereak sortu zen urte berean, matxismoari aurre egiteko.

**PAUL ABASOLO.** Sexu abusuegatik zigortu egin zuten arren, Espainiar estatuko gobernua indultua eman zion 2011n. Gerora, Abasolok Durango ekintzaile feminista bat salatu zuela adierazi zuen Duran-

goko plataforma feministak. Epailak auzia artxibatu zuen.

**FRAN GARATE.** Durango PPko zinegotzi izan zen 2015etik 2019ra bitartean. 2017an atxilotu egin zuten, sexu eraso salaketa bat tarteko. Bizkaiko Auzitegiak emakumearen errekurtsoa atzera bota eta salaketa artxibatu zuen.

**MARTXOAREN 8KO GREBAK.** Azken urte bietako greba feministek inflexio puntu bat markatu dute. Durango kaleetan uholde morea zabaldu zen, jada atzerapausorik ez duena.





1997an ateratako argazkia.

## Hareek denporak!

# MOZORRO EGUNEAN DANTZARI DANTZAN

Iurretako jaiak amaitu diren arren, ospakizunekin jarraitzen dute. Bihar, bost urterik behin antolatzen den Urrijenan, ehunka dantzari batuko dira Iurretako plazan. Hainbat belaunalditako taldeak entseguetan ibili dira, egun honetan distira egiteko. Emozioz betetako eguna izaten da iurretarrantzat. Argazkiko talde hau Iurretakoa da, baina ez da plazara irtengo. Izan ere, egun bakarrean dantzan egite-

ko sortu zen. 1997ko San Migel jaietan, ezpatadantzari jantzi ziren mozorro egunean. Sasoi hartan, ez zegoen emakume ezpatadantzaririk. Emakume hauek egun horretarako ikasi zuten Dantzari Dantza. Mozorro eguneko folklore jaialdian irten ziren plazara. Goiuriko Ama dantza taldea izena ipini zioten. Gaur egun, zorionez, emakume ezpatadantzariena mozorro bat baino gehiago da. J.G.

## Durungaldea asteen

### 'Hai, ametsen arrantzalea' umeentzako antzerkia Berrizko Kultur Etxean

**Berriz I** Giramagic konpainiak *Hai, ametsen arrantzalea* umeentzako antzezlan taularatuko du, gaur, Berrizko Kultur Etxean, 18:15ean. Emankizuna euskaraz izango da, eta sarrerak 4 euro balio du (bazkideentzat 3 euro). Antzezlanean, itsas barraskilo batek ozeanoaren musika egiten du kartoizko ontzi batean. Joana Rheingantz obrako antzezle eta egileak bidaiari onirikotant murgiltzeko gonbita egin du.

### Zornotzako kultur taldeek Euskal Jaia antolatu dute urriaren 19rako

**Zornotza I** Zarpantzarrekin abiatuko dute eguna, 11:30ean. Herrian zehar kantaldi eta dantzaldiak egingo dituzte. Bazkari herrikoien ondoren, bertsolariak arituko dira, Ixerbekoa kiroldegian. Esku pilota partiduak eta kontzertua izango dira arratsaldean. Eingo taldearen kontzertuagaz amaituko dute eguna, Zelaieta parkean. Kontzertua 20:00etan hasiko da.

### Urkiolan dauden hegazti harrapariak gauzez ikusteko proposamena

**Abadiño I** Urkiolan txangoa antolatu dute, Iñigo Zuberogoiaren eskutik hango hegazti harrapari gautarrak ezagutzeko. Txangoa doakoa den arren, plazak mugatuak dira. Izena emateko, 946814155 zenbakira deitu daiteke telefonoz, edo mezua bidali daiteke [urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus](mailto:urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus) helbidera.

## Iritzia

### Sasoi ilunak datoz Atxondora, AHTko obrak hasteko etorri dira gure herrira.

Herritar talde batek AHTaren aurkako mugimendua zabaldu zuen Atxondon, eta, besteak beste, herri galdeketa antolatu zuen 2007ko martxoaren 25erako. 471 pertsonak bozkatu zuten, eta horietatik 468k AHTaren kontra. 2007an Udal Gobernura sartu ginen ANVko kideok herritarren mandatu konkretu bat geneukan: AHTa gelditzeko ahalegin guztiak egitea.

Gaur tristuraz eta amorruz irakurtzen dugu EAJko udal gobernu berriak duen jarrera lotsabakoa. Herria kaltetzea leporatzen digu, trazatu ofizialari alternatiba bat zegoela (bat baino gehiago zeuden) eta ANV eta EH Bilduk okerrenaren alde egin dugula esanez. Trazatu alternatibo horietako bat ere ez zen legezkoa, Ingurumen Baimenik ez dutelako, beste gauza askoren artean. AHTak Atxondoren etorkizuna arriskuan jartzeak erantzule argiak ditu: AHTaren bultzatzaileak izan direnak eta udaletik bertatik laguntza ematen dietenak.

Gaur egungo alkatea den Xabier Azkaratek AHTaren aurka dagoela azaldu du publikoki, eta beraz, berari zuzentzen gataizkio gonbidapen batekin: jarrai dezala orain arte udalak izan duen ibilbidea. Legea betearazi dezala. Jarrai dezala udalak orain arte izan dituen teknikarien laguntza horretarako erabiltzen. Ez dezala baimenik eman herrian obra ilegalak egin ditzaten eta ez dezala bestaldera begiratu edo burua ezkutatu.

Gu prest gaude Atxondok etorkizun duin bat izan dezan lanean jarraitu eta bide honetan lagun izan daitezkeen guztiakin elkarlanean aritzeko. Eta AHTari aurre egiteko eskura ditugun tresna guztiak erabiltzen jarraituko dugu, bai Udalean eta baita bestelako erakundeetan ere.

Animo herritar guztiei, indarrak batuz gehiago gara eta! Ostegunetan plazan elkartuko gara.

DAVID COBOS, ROSA ELIZBURU, IÑIGO MENDIBIL, EIDER ABADIANO, IGOR IBAZETA, ONINTZE OLEAGA, UZURI GALLASTEGI, MIKEL KANO, BEÑAT AMIANO, ANE BERNAS, JORGE JAUREGI, MERTXE IRAZABAL, IGOR OLAETXEA, JOSUNE IRAZOLA

#### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia  
**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

**hitz** liburudenda  
artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

#salduenak

<p>7<sup>#</sup></p> <p><b>BASA</b> Miren Amuriza (Elkar)</p>	<p>2<sup>#</sup></p> <p><b>HEZURREN ERRETURA</b> Miren Agur Meabe (Susa)</p>	<p>3<sup>#</sup></p> <p><b>Sapiens</b> Yuval Noah Harari (Elkar)</p>	<p>4<sup>#</sup></p> <p><b>KONTRAKO EZTARRITIK</b> Uxue Alberdi (Susa)</p>	<p>5<sup>#</sup></p> <p><b>MOIO</b> Kattalin Miner (Elkar)</p>
---	--	--	--	--

CERAMICAS  
**MACOBER**

**ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA**

Eitua industr., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890  
[www.macober.com](http://www.macober.com)



## Durangoko jaiak 2019

### Urriak 11

VII. Argazki lehiaketaren hasiera. Argazkiak aurkezteko epea urriaren 21ean, 24:00ak arte (f-stopdurango.org)

**19:00** Patxikotxuri ongi etorria San Fausto auzoan. Ondoren, kuadrillen jaitsiera udaletxeko plazaraino SUGARRI fanfarreagaz eta buruhandiekin.

**20:00** Txupinazoa udaletxeko plazan. 2019ko txupineroa: "Durangoko jubilatuen eta pentsiodunen plataforma".

**20:00** Nesken saskibaloia partida Landako Kiroldegian: TABIRAKO BAQUÉ - UNIVERSIDAD DEUSTO LOIOLA INDAUTXU.

**20:30** Kalejira udaletxeko plazatik txosnagunera.

**20:30** Kontzertua Andra Marian. Zatoz XX. hamarkadako Mississippi eta New Orleansera GHOST NUMBER & HIS TIPSYPY GYPSIES taldeagaz.

**21:00** Txupinazoa ERNAL-ren eskutik txosnagunera.

**22:00** Musika ibiltaria ROCKALEAN taldea. Alde Zaharretik.

**22:30** Kontzertua txosnagunera: DESORDEN, TRIBADE eta ADRENALIZED.

**23:30** Manifestazioa Durangoko Autodefentsa Feminista Asanblada (DAFA)-k deituta, Andra Mariko elizpetik. (Txosna Batzordea)

### Urriak 12

**7:00** Diana txistulariekin.

**7:30** Zezenak Dira dultzaineroekin. Durango Rugby Taldearen eguna. Mozorroa: GALIARREN HERRIXKA.

**08:00** Sukalki txapelketa Landako Gunean.

**10:30** Esku pilota txapelketa San Fausto pilotalekuan. (Durango Pilotazale Elkartea).

**11:00-13:00** Zumba family Ezkurdin (Durango Kiroalak)

**11:00-13:00** Xake txapelketa umeentzat Andra Marian. Aldi bereko partidak eta itsuan (Larrasoloeta Xake Taldea).

**11:00-13:00** Haurrentzako tailerrak Ezkurdin. (Euria bada, Nevers ikastetxean). (Iñurri Eskaut Taldea).

**11:00-14:00** Haur parkea Ezkurdin. (Euria bada, Nevers ikastetxean).

**11:00-14:00** Jumping, puzgarriak eta jolasak tren geltokiaren gaineko plazan. (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**11:30** BEGI ARGIAK abesbatza J.M. Barandiaran egoitzan.

**12:00-13:00** Durango Irratian lehiaketa (107.8 FM).

**12:00** Oilasko errearen dastaketa Andra Marian. (Txosna Batzordea).

**12:00** Kalejira txistulariekin.

**12:00** Kalejira LA SENDA DEL BARRITAR Alde Zaharretik.

**12:00** Patxikotxuren kalejira ZABALARRA ESKOLAgaz Ezkurditik udaletxeraino eta ohorezko aurrekua.

**12:30** Txupinazo txikia ZABALARRA ESKOLArekin eskutik udaletxe plazan.

**13:00** Bilbainadak LOS CHIMBEROS taldeagaz (80. urteurrena) Andra Mariko elizpean.

**13:30** BEGI ARGIAK abesbatzagaz kalejira Alde Zaharretik.

**14:00** Gazte eguneko bazkaria txosnagunera.

**16:00** Motoziklismo pilotuen eta Supermotoen erakustaldia San Fausto auzoan (5 - 12 urte).

**16:00-19:00** Jumping, puzgarriak eta jolasak tren geltoki gaineko plazan. (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**16:30** Musika animazioa AICE DJagaz Landako Gunean

**16:45** Futbol partida Tabiran: DURANGOKO KULTURALA - SANTUTXU.

**17:00** Tortilla txapelketa San Fausto auzoan (Gure San Fausto Berria).

**17:00** Pertsonen erreskate txakur taldearen erakustaldia "UCAS DE ARRATE" elkarreagaz Landako Guneke parkean. (Euria bada, Nevers ikastetxean).

**17:30** Kale antzerkia "El viaje ulterior"

**17:30** Kuadrillen arteko grand prix: bigantekin eta bigantxarrik bako jokoak zezen plazan. Sariak irabazleentzat. (Manzarbeitia Ganadutegia)

**18:00** Kantu jira Alde Zaharretik: BENTAZAHARREKO MUTIKO ALAIK.

**19:00** 3. mailako areto futbol partida Landako kiroldegian: CD SASIKOA DURANGO - SCORPIO ALKIDIBA.

**19:00** Gangar proba (rap musika-freestyle) Madalena auzoan (Auzo Alai elkartea).

**20:30** Festa-pote San Fausto auzotik (Gure San Fausto Berria).

**21:00** Zezen suzkoa Ezkurdin.

**22:00** REVOLTA PERMANENT Andra Marian.

**22:00** Disko dantza San Fausto auzoan.

**22:30** Kontzertua txosnagunera: DUPLA eta DJ TXEFA.

**23:00** "LOS 40 SESSIONS - DURANGO GAUA" RAMSÉS LÓPEZ DJagaz Ezkurdin.

### Urriak 13

**7:00** Diana txistulariekin.

**7:30** Zezenak Dira dultzaineroekin.

**09:00** San Fausto XXX. Calva txapelketa Murueta Torren. Antolatzailea: Centro Palentino Castellano Leonés - Peña Calvera.

**10:00** Haurrentzako arrantza txapelketa Pinondon eta San Agustinen. Antolatzailea: Ehiza eta arrantza elkartea.

**10:00-14:00** Beatbox, breakdance, parkour, skate eta surfskate tailerrak Madalenosten. (Eguraldi txarragaz, San Antonio ikastetxean).

**10:30** EIXU artisaun azoka txosnagunera.

**11:00** Meza nagusia San Fausto elizan.

**11:00** "Buru eta bihotz" jolas librerako gunea txosnagunera.

**11:00-14:00** Txu-txu trena Landako Gunean.

**11:00-14:00** Poneyak eta zaldiak Landako Guneke parkean. Dukiena Hipika Zentroa.



# Zinea

## :: Berriz KULTUR ETXEA

### • Agur Etxebeste!

barikua **11:** 22:00  
domeka **13:** 19:00

## :: Durango - ZUGAZA

### • Geminis

barikua **11:** 19:30/22:00  
zapateria **12:** 17:00/19:30/22:30  
domeka **13:** 18:00/20:30  
astelehena **14:** 18:30/21:00  
martitzena **15:** 20:00  
eguztzena **16:** 20:00

### • Abuelos

barikua **11:** 19:30/22:00  
zapateria **12:** 19:30/22:30  
domeka **13:** 18:30/20:30  
astelehena **14:** 18:30/21:00  
martitzena **15:** 20:00

### • Noche de bodas

barikua **11:** 19:30/22:00  
zapateria **12:** 17:00/19:30/22:30  
domeka **13:** 18:00/20:30  
astelehena **14:** 18:30/21:00  
martitzena **15:** 20:00  
eguztzena **16:** 20:00

### • Tabaluga y la princesa de hielo

zapateria **12:** 17:00  
domeka **13:** 16:30

## :: Elorrio - ARRIOLA

### • Quien a hierro mata

zapateria **12:** 22:00  
domeka **13:** 20:00  
astelehena **14:** 20:00

### • Angry Birds 2

zapateria **13:** 17:00

## :: Zornotza - ARETOA

### • Abuelos

barikua **11:** 20:15  
zapateria **12:** 19:30/22:00  
domeka **13:** 20:00  
astelehena **14:** 20:15

### • Dora y la ciudad perdida

zapateria **12:** 17:00  
domeka **13:** 17:00

### • Sofia

martitzena **15:** 20:15

**11:00** Paella txapelketa San Fausto auzoan. Sari banaketa. (Gure San Fausto Berria)

**11:30** Bizikletaren jaia: - Ibilbidea bidegorritik familia osoarentzat (5etik 9 urtera bitarteko neska-mutilekin).  
- Mountain Bike ibilbidea(10etik14 urtera arteko neska-mutilentzat).  
Irteera Santa Anatik. Durangoko Txirringuluri Elkarte.

**11:30** Erraldoiak eta buruhandiak Alde Zaharretik.

**12:00-13:00** Durango Irratian lehiaketa (107.8 FM). Gaia: San Fausto Jaiak.

**12:00** Ping-pong txapelketa eta 3\*3 saskibalo txapelketa San Ignazio parkean. (Auzo Alai elkarte)

**12:00** Paella txapelketa txosnagunean. Bitartean, "Salda badago": salda trukaketa jardunaldi feministei begira.

**12:00** Kalejira txistulariekin.

**12:30** Txalaparta, ohorezko aureskua eta artopilen banaketa udaletxeko plazan.  
Ondoren, DURANGOKO DANTZARIAK. (Euria bada, Andra Mariko elizpean).

**12:40** Arte martzialen kalejira eta erakustaldia Alde Zaharretik. Club Deportivo Wado Kan Karate-Ninjutsu.

**13:30** "EGUNDO I" taldea. Kalerik kale kantuan Alde Zaharrean.

**16:00** Poneyak San Fausto auzoan.

**16:00-19:00** Txu-txu tren Landako Gunean.

**16:00** Kontzertua txosnagunean: MY BASTARD FRIEND.

**17:00** Mañaria errearen jaitsiera Tabiratik hasita. (Txosna Batzordea).

**17:00** Haurrentzako bits jaia Murueta Torre auzoan. (Murueta Torreko Auzo Elkarte).

**17:30** Txokolatada eta haurrentzako jolasak San Fausto auzoan (Gure San Fausto Berria)

**17:30** Haurrentzako dantzaldi-ikuskitza "Gora Kasete!" EIDABE taldeagaz Andra Marian.

**17:30** Errekortarien txapelketa nagusia zekorrekinezen zezen plazan. Ondoren, bigantxak (Manzarbeitia Ganadutegia)

**18:00** Senegaleko erritmoak M'LOMP elkarteagaz Andra Maritik hasita.

**18:00** XXXVI. San Fausto zesta-punta txapelketa (finalerdiak) Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan (Ezkurdi Jai Alai Zesta-punta Eskola eta Peña Ezkurdi)

**18:30** Erromeria LUHARTZ taldeagaz Ezkurdin.

**20:00** "In Situ" dantza bertikal saioa Santa Anako kanpandoretik, LA GLO konpainiaren eskutik.

**20:00** Kontzertua txosnagunean: MICE, GANORABAKUEK, MOCKERS eta GORA ETORRI.

**21:00** Zezen suzkoa Ezkurdi plazan.

**22:00** Dantzaldia San Fauston (Gure San Fausto Berria).

**22:00** Erromeria LUHARTZ taldeagaz Ezkurdin.

# Urriak 14

**7:00** Diana txistulariekin.

**7:30** Zezenak Dira dultzaineroekin.

**10:00-13:00** San Fausto XLVI. haur marrazki lehiaketa San Fausto auzoan. Izen-ematea: 10:00-12:00. Adina: 6 urtetik 17ra (Centro Social San Fausto)

**11:00-14:00** Haur parkea Ezkurdin. (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**11:00-14:00** Puzgarriak, ohe elastikoak eta haurrentzako jolasak tren geltoki gaineko plazan. (Euria bada, Landako Gunean).

**11:30** Ipuin kontalariak ingelesez 3tik 8 urtera bitarteko umeentzat Ezkurdin (Kids&Us)

**12:00** Kalejira txistulariekin.

**12:30** "Yijaaa" kale antzerkia Ezkurdin.

**14:00** Nagusientzako bazkaria Landako Gunean

**16:00-19:00** Haur parkea Ezkurdin. (Euria bada, San Antonio ikastetxean).

**16:00-19:00** Puzgarriak, ohe elastikoak eta haurrentzako jolasak tren geltoki gaineko plazan. (Euria bada, Landako Gunean).

**18:00** Futboleko mundialito eta briska txapelketa San Fausto auzoan.

**18:30** "Al otro lado" kale antzerkia ZANGUANGO konpainiagaz Askatasun Etorbidean (Herria tabernaren inguruan).

**19:30** Musika a capella DEMODE QUARTET taldeagaz Andra Marian "Demode en concierto" ikuskizunagaz.

# Urriak 16

**09:30** Bi makilekin oinez nagusientzat. Durangotik ibilaldia. Irteera: Kuruztiagako iturrian. 3 ibilbide aukeran: 5,3 km, 6,5 km eta 8,5 km. Nagusien Udala Saila. Bimakilakin taldea.(Bizidun Nagusien Elkarte).

**20:00** VI. Durango Urriko areto futbol saria Landako kiroldegian: CD SASIKOA - KUKUYAGA F.C.

## Urriko agenda



**12**

### "URRIJENA"

**09:15** Belakortu zerrategiko aparkalekuan taldeen argazkia.  
**10:15** Aparkalekutik plazara kalejira, herritik buelta emanez.  
**11:00** Meza nagusia. Ondoren, Dantzari Dantza eta Gorulari Dantza. Jarraian, 65 urtetik gorakoei omenaldia. Amaitzeko, emakumeen eta gizonen Soka Dantza.  
**15:00** Bazkaria Askondoko Karpan.  
**18:00** Erromeria Luhartz taldeagaz.

**14**

### "HERRI BIBLIOTEKA"

**16:45** Paperezko hegoak (DBH)

**15 - 30**

### "ANDEREBIDE"

Hipopresibo ikastaroan izen-ematea zabalik.  
Informazio gehiago: Tel. 616 49 05 06

**15**

### "DURANGOKO AMANKOMUNAZGOKO EUSKARA ZERBITZUA"

**16:45** Familian Euskaraz olgetan programa.  
Izen-ematea: gazteak@berbaro.eus Tel. 946 20 25 40  
Plaza mugatuak.

### "HERRI BIBLIOTEKA"

**17:00** Irakurketa kluba "Entre escamas" / Leire Bilbao.  
**18:30** Irakurketa kluba "Ezkatak" eta "Scanner" / Leire Bilbao.





**Galder  
Gaztelu-Urrutia**  
Zinema zuzendaria  
Durango | 1974

**Urteak daramatzazu zineman, baina honakoa duzu zuzendu duzun lehenengo film luzea. Erronka handia izan da?**

Gatxena, beti, dirua lortzea da. Film laburrak egin ditut, pelikula, produkzio lanak, departamen-

“**Dirua lortzea da gatxena; esperientzia zabala dut sektorean, eta ez dut aldaketa handirik igarri proiektuagaz**”

tu askotan lan egin dut... Esperientzia zabala dut zinema munduan, eta proiektu hau martxan ipini zenean, ez nuen aldaketa handirik igarri. Esan bezala, alde ekonomikoa izan da zailtasunik handiena. **Beraz, horixe da orain ateratzearen arrazoa?**

Bai, funtsean bai. Gero, baina, proiektu egokia heltzeko zain ere egon naiz. Dauden finantziario arazoekin, zinema hemen egitea ahalegin titanikoa da.

**Orain, zer ibilbide du aurretik 'The Platform'-ek?**

Austineko Fantastic Fest festibalean egon gara, eta baita Sitgesekoan ere (Herrialde Katalanak). Hilaren 26an, Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Astean egongo gara. Pelikula Netflix plataformak hartu duenez, ez du jaialdietan ibilbide luzeagorik edukiko.

## “'The Platform' egungo egoerari lotuta dago, baina berdin ulertuko zen orain hogeit hamar urte edo hogeit hamar urte barru”

Festibaletan harrera ona izan eta gero, Gaztelu-Urrutiaren 'The Platform' pelikula Netflix plataforman egongo da ikusgai laister

ZINEMA • ARITZ MALDONADO

**Galder Gaztelu-Urrutia durangarra urte luzez dabil zinemagintzan, eta, oraintsu, bere lehenengo film luzea estreinatu du zuzendari lez: 'The Platform'. Torontoko nazioarteko film festibalean saria jaso ondoren, beragaz berba egiteko aukera izan du ANBOTOK.**

**Harrera ona izan du 'The Platform'-ek?** Toronton, Midnight Madness atalean harrera ikusgarria izan du. Han nengoela, uste nuen ez nintzela proiektu osoan egongo, hainbat bider ikusi dudalako pelikula osorik, baina lehenengo minutuetan publikoak zelan erreakzionatu zuen ikusita, geratu egin nintzen. Harrera paregabea eduki zuen. **Kutsu sozial handiko pelikula ei da.** Ez dut gustuko pelikula bati sozial etiketa ipintzea, normalean jasangaitzak izaten direlako. Pelikula hau fantasiako thriller bat da, mezu soziala ere baduena. Aberastasunaren banaketari buruz berbetan dugu, pertsona guztion barruan dagoen egoskortasunari buruz... Normalean, generoko zineak beti eduki du mezu soziala, eta honek oso presente du. Hori egia da. **Bizi ditugun garaiotan, oso identifikagarriak.**

Bai, istorio internazionala da, eta gaur egungo egoerari oso lotuta dagoena. Baina, egia esan, hemendik hogeit hamar urtera ere berdin funtzionatuko luke, eta orain hogeit hamar urte ere bai. Aberastasunaren banaketa antzerakoa izan da historikoki.

**Nola azalduko zenuke zer den 'The Platform' ['El Hoyo' gaztelaniaz?]**

Pelikularen tematika baino gehiago, testuingurua azaldu eta istorioa bertan kokatzea da errazena. 'El Hoyo' giltzapeko gune moduko bat da, eta goitik behera zelda edo gelak daude multzokatuta; zulo horren bitartez [el hoyo] daude lotuta gelak, eta bertatik plataforma bat jaisten da, bizilagunentzako janaria daramana. Plataforma minutu bian dago maila bakoitzean, eta, denbora horretan, maila horretako biztanle biek gura beste janari jaten dute, plataforma berriro jaisten hasi arte. Imajinatu dezakezun bezala, jaitsi ahala janari gutxiago du plataformak, eta behekoek helitzen denagaz konformatu behar dute. Hilabeteren ondoren, biztanleak lekuz aldatzen dira.

Premisa horretan oinarrituta, aukera dugu iparralde-hegoalde banaketari buruz berbetako, edo klase sozialei buruz. Testuinguru

“**Dauden finantziario arazoekin, hemen zinema egitea ahalegin titanikoa da**”

horretan, pertsonaia nagusi bat dago, 'El Hoyo'ra heltzen dena; bera boluntarioa da eta ez daki nolako infernua izango den. Maila bakoitzean gertatzen dena ikusten dugu bere ikuspuntutik; berak desberdin jokatuko du maila batean edo bestean egon. Funtsean, horixe da pelikula, bakoitzak nola jokatzen duen egoera desberdinetan.



'The Platform'



**Durangaldeko azken  
albisteak jaso gura  
dituzu?**



**Batu  
Anbotoko  
whatsapp  
taldera**

**Bidali ALTA**

**688 635 041**

**telefono zenbakira**



**Izan zaitetz berriemaile ere.**

**Bidali zure argazki eta bideoak**



# Folagor youtuberrak eta Myth eta Roid rock bikoteak emanaldiak eskainiko dituzte Zornotzan

Mangamore jaialdiaren XIII. edizioa urriaren 11tik 13ra bitartean izango da. Iaz bezala, sei gune egongo dira; horietako bat, lehenengoz, herriko plaza izango da; guztira, 50 ekitalditik gora egongo dira asteburu osoan zehar

**MANGA • E.H. / A.M.**

Hamahirugarren urtez, Japoniako kultura Zornotzara dakarren Mangamore jaialdia egingo dute asteburu honetan. Iaz, 14.000 lagun baino gehiago bertaratu ziren jaialdiak iraun zuen hiru egunetan.

Folagor youtuberra eta Myth eta Roid Japoniako rock taldea izango dira hamahirugarren edizio hone-

**Iaz, 14.000 lagun baino gehiago bertaratu ziren jaialdiak iraun zuen hiru egunetan zehar**

tako protagonistak. Lehenengoak 4.000.000 jarraitzaile baino gehiago ditu bere kanalean; zapatuan, 13:00etan, berbaldea eskainiko du Amorebieta IV frontoian. Bestalde, Myth eta Roid bikoteak hainbat Anime filmetako musika egin du. Euren kontzertua ere zapatuan izango da, 20:00etan. Bestalde,

cosplay lehiaketak, karaokea eta umeentzako jolasak egongo dira, eta bideo-joko txapelketetan parte hartzeko aukera ere egongo da. Horrez gainera, Japoniako janaria dastatzeko aukera ere izango dute

Zornotzara doazen herritar zein kanpokoek.

**Kirola indartzeko asmoz**

Ekitaldi kulturalaz gainera, aurtengo edizioan antolatzaileek arreta

berezia eskaini diote kirolari. Horrela, gune laranjan (Larrakon) V. Quidditch txapelketa jokatuko da. Arte martzial ikuskizunak egongo dira aurtengoz; karate, ninjutsu eta aikido ikuskizunak, hain zuzen ere.



Iazko Mangamoreko argazkia.

## Urriaren 17an La Noche Boludaren denboraldi berria hasiko da Plateruenean

Lau antzerki saio berezik osatzen dute denboraldi berria; hilean behin egingo dira saioak, egunetan, 21:00etan

**ANTZERKIA • A.M.**

Denboraldi berria *Boluda Kabareta* saio bategaz hasiko da. Formatu jada klasiko honetan, deneriko diziplinak jorratzen dituzten artistek parte hartuko dute. Urriaren 17an izango da.

Teatro zikloaren bigarren saioa azaroaren 21ean izango da. Marta

Renyerren eskutik, *El gran cabaret de Elvira* ikusi ahalko da. Abenduaren 19an, Katastrofen bilbotarren *Neopreno* saioa izango da protagonista. Zikloa ixteko, Fanny Giraud frantziarrak *Juntos* aurkeztuko du, urtarrilaren 23an. Saio guztiak 21:00etan hasiko dira eta sarrera bakoitzak 5 euro balio du.



Cecilia Paganini, La Noche Boludaren sustatzailea.

**Gai librea**

Garazi Mugarza Markina Erizaina



**Osasuna eta generoa**

Carme Valls Llobet endokrinologoa entzuteko aukera izan dut duela gutxi kongresu batean. Harritu egin ninduen haren determinazioak. Gehienon gusturako denbora tarte laburrean, osasun eta genero desberdintasunen inguruan hitz egin zigun. Berrogei urte ingururekin ohartu omen zen artatzen zituen emakume askok arazo berak kontsultatzen zituztela: mina, nekea eta genero-biolentzia. Ordutik, ikuspegi zientifiko batetik, emakume eta gizonek gaixotze-prozesuan dituzten ezberdintasunak ikertzen jardun du, besteak beste.

Emakumeen osasun biologikoa ikusezina da zientziaren alderdi gehienetan, eta ondorioz, osasun-arretan hauen aferak ere hala mantentzen dira. Ze, gaitzen sintomatologia tipikoa gizonen arabera osatu izan da. Inoiz entzungo zenuten bihotzekoaren sintomak inespezifikokoak izan ohi direla emakumeengan. Eta pentsatu arren bihotzekoak eta antzekoak gizonaren osasunari lotuta doazela, egiazki emakume gehiago dira gaitz kardiobaskularren ondorioz hiltzen direnak.

Emakumeok urte gehiago bizi gara, baina urte horiek min eta gaitz kroniko gehiagorekin bizi ditugu. Eta emakume bat doanean medikuarenera min bat edo neke bat daukalako, sintoma hori oso modu errazean esleitzen zaio depresio edo antsietate bati, fibromialgiari... eta psikofarmakoen bidez artatzen dira ustez gaitz mental diruditenak, ondoezak kronifikatuz. Hobeto diagnostikatu beharrean, bizi prozesuak medikalizatzen direla esanaz amaitu zuen.

Gizonaren mundu benetan errealean bizi gara, eta asko dago egiteko.



OINETAKO  
PATOLOGIAK  
NEURRIRA  
EGINDAKO  
PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE  
HAINBAT GAITZ



Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

katerin  
ardoak  
iñaki  
uribe

25<sup>unte</sup>  
Saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak  
Delicatessena - Ardogia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com





## IURRETA *Tellitu-n*

3 logelatako 6 etxebizitza

2 logelatako 11 etxebizitza

Garajea eta trastelekua barne

**ZARATE**  **ELEXPE**  
E R A G I L E A K

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyexpe.com](http://www.zarateyexpe.com)



# “Konako ironmanean lehenengo hamarren artean sailkatzea gauza handia izango litzateke niretzat”

Fradesek Konako munduko triatloi txapelketan parte hartuko du, laugarrenez; 3.800 metro igerian, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilometro korrika egin beharko ditu



**Gurutze Frades Larralde**

Triatleta  
lurreta | 1981

42 kilometro egin beharko ditu korrika. JAMES MITCHELL

## TRIATLOIA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

**Gurutze Fradesek munduko triatloi txapelketa lehiatuko du zapatuan, Konan, Ironman distantzian. Laugarrenez izango da Hawaiiin, eta 3.800 metro egin beharko ditu igerian, 180 kilometro bizikletan eta 42 kilometro korrika.**

**Bihar Hawaiiiko Ironmanean parte hartuko duzu. Zer moduz zaude?**

Ondo nago. Dagoeneko hainbat egun daramatzat Konan, eta, egia esanda, oraingoz lasai nago. Lasterketa aurreko detaile guztiak zaintzen nabil. Karrera aurreko egunak oso garrantzitsuak dira, azken entrenamenduak ondo egitea ezinbestekoa da, baita materiala puntuan jartzea, atsedean hartzea eta ondo jatea ere.

**Ze helburu ipini diozu zeure buruari? Helburu nagusia Hawaiiiko Ironmanera nire sasoirik onenean**

heltzea izan da, eta lortu dudala esan dezaket. Hemen edozein posturengatik borroka egitea oso zaila da, baina egunero ahalegin bete egiten dugu onenen artean egoteko. Beraz, ahalik eta aurreren egoten ahaleginduko naiz. Konako ironmanean lehenengo hamarren artean sailkatzea gauza handia izango litzateke niretzat.

“

**Helburu nagusia Hawaiiiko Ironmanera nire sasoirik onenean heltzea izan da”**

—

**Beste urte batzuekin alderatuta, nola zaude?**

Urtero puntutxo bat hobeto hel-

zten naizela esango nuke, eta aurren ere beste urteetan baino zertxobait hobeto nago.

**Konan egoteak presio puntu estra bat ematen du? Motibazio handiagoa?**

Hemen egoteak denetik du. Gutxi dakigu hemen egotea zenbat kostatzen den. Konako irteera puntu eskusiboan egotea lorpen handia da niretzat. Osasunez ondo eta nire onenean heltzea motibazio handia da. Bestalde, urte guztiko lana, sakrifizioa eta jasotako laguntza justifikatu behar izatea presio handia da.

**Lasterketari begira, zein modalitatean ikusten duzu indartsuen zeure burua? Eta zeini diozu errespeturik gehien?**

Lasterketari hainbat momentu klabe ikusten dizkiot. Uste dut ezinbestekoa dela uretan erreferentzia bat izatea, eta hori ez galtzea. Bi-

zikletan, oster, kontzentrazioa mantentzea garrantzitsua izango da, zati batzuk oso gogorak egiten baitira. Horrez gainera, lasterketan zehar gogor eragin beharko zaie pedalei, eta janaria eta hidratazioa ondo zaindu beharko dira. Nire alderik indartsuena ez etsitzeko ahalmena dela esango nuke, amaieraraino sendo heltzeko gaitasuna.

**Apirilaren 7an lortu zenuen mundu-**

“

**Konako irteera puntu eskusiboan egotea lorpen handia da niretzat”**

—

**ko triatloi txapelketarako txartela. Esan daiteke inoiz baino denbora gehiago izan duzula urteko helburu nagusia prestatzeko?**

Beste urte batzuekin alderatuta, prestakuntza ezberdina izan dut, eta denbora gehiago prestakuntza horretarako. Horrek aukera ematen du entrenamenduaren parte batzuetan gehiago sakontzeko, gehiago lantzeko. Kontzienteki eta gogor lan egindako 23 aste izan dira.

**Munduko txapelketarako txartela lortu zenuenetik, ia sei hilabete igaro dira. Luze egin zaizu prestakuntza?**

Plangintza ona eginda, prestakuntza ez da luze egiten. Hile hauetan guztietan garrantzitsua izan da lanaldiak ondo antolatzea, kontzentrazioak, txapelketak, atsedeen egunak eta bidaiak ondo marka-

tzea eta betetzea, besteak beste. Batzuetan, helburuak oso urrun ikusten ditugu, oso zaila izaten da horiek imajinatzea eta forma ematea, baina denbora oso azkar pasatzen da eta urteko helburua gainean izaten dugu.

**Beste urte batzuetan lez, aurren ere Sierra Nevada izan zara Konako Ironmanera prestatzen. Zer moduz joan dira entrenamenduak?**

Asko dira urte guztian zehar altueran egiten ditudan kontzentrazioak. Batzuetan gogorra egiten da bertan egotea, baina, orokorrean, oso ondo entrenatzen naiz han, eta gustura egoten naiz.

“

**Egunero, asteko egun guztietan, pare bat hiru bat entrenamendu egiten ditut”**

—

**Zer ematen dizu altueran entrenatzeak?**

Altueran entrenatzea beste estimulu bat da nire plangintzan. Esan daiteke modu aproposa dela errendimendua hobetzeko.

**Amaitzeko, urteko hitzordurik garrantzitsuenerako prestatzen zaudenean, nolako izaten da Gurutze Fradesen egunerokoa?**

Nire egunerokoaren oinarrian, entrenatzea eta entrenamendu horretatik erreperatzea daude, deskantsuagaz eta jatekoagaz. Egunero, asteko egun guztietan, pare bat hiru bat entrenamendu egiten ditut.



180 kilometro egin beharko ditu bizikletan. ALFREDO POOMUSAIEVA





## “KIROL ERROTAN GIRO EUSKALDUNA ETA ETXEKOA TOPATUKO DUZU”

Gorputza mugimenduan edukitzeak dituen onurek gure bizi-kalitatea hobetzen lagunduko digute, gaur egungo bizi ohitura sedentarioak ekar ditzakeen arazoak saihestuz

### > KIROL ERROTA

Kirol Errota gimnasioko arduradun eta begirale berriak dira Jokin Etxebarria (Durango, 1989) eta Alex Allende (Durango, 1984) Kirol Errotak duen ibilbide luzean. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatua bata, eta zenbait kirolen formakuntza profesionala duena bestea.

Kirolak osasunean duen eragin positiboa kontuan izanik, eskaintza pertsonalizatu eta gertukoan sinesten dute, erabiltzaile bakoitzari behar duena eskainiz. Euren aburuz, horixe da Kirol Errota beste gimnasio batzuetatik bereizten duen ezauzgarrietako bat. Gainera, klaseak euskaraz ematen dituzte, giro

euskalduna eta etxekoa biziz Tabira auzoan dagoen gimnasioan.

Taldeka zein bakarka parte hartu daiteke, erabiltzaile bakoitzaren helburu zein gustuen arabera. "Guk geuk osasunaren bidetik jotzen dugu, eta bakoitzaren berezitasunak eta beharrianak kontuan hartzen ditugu, gaur egun pertsonalizazio falta dagoela sumatzen baitugu. Adibidez, pertsona batek bere helburua argi ez duenean, bere egoera aztertzen dugu, eta nahien arabera ibilbidea markatzen saiatzen gara, bere ongizatera bideratuz. Mota askotako jarduerak eskaintzen ditugu; adibidez, Cicloindoor (kaleko hizkeran spinning esaten zaiona), HIIT, Bodypump,

TRX eta pilatesa. Eskaintza hau bezeroen nahietara moldatzen saiatzen gara, eta, hori dela-eta, posible da denboran zehar gure eskaintza aldatzea edo egungo eskaintzari jarduera berriak gehitzea, Kickboxinagaz gertatu den bezala", adierazi dute Alexek eta Jokinek. "Gorputza mugimenduan edukitzeak dituen onurek gure bizi-kalitatea hobetzen lagunduko digute, gaur egungo bizi ohitura sedentarioak ekar ditzakeen arazoak saihestuz, eta etorkizunera begira bizi baldintza hobek izatera bultzatuz. Honek guztiak, gainera, nork bere egunerokoa hobeto eramaten lagunduko digu, familiar, lagun artean, eta abar".



## Anbotoren Lagunek doan dute matrikula

Durangoko preziorik merkeenetakoa dute gimnasioan

Kirol Errota gimnasioko prezioen baitan, Anbotoren Lagunek deskontu baterako eskubidea dute. Ez dute matrikula ordaindu behar, eta 39 euro aurretuko dituzte. Etxean duten txartelagaz jasoko dute abantaila gimnasioan apuntatzerakoan. Anbotoren Lagun izan gura dutenek 94 6816 558 telefonora deituta dute horretarako aukera. Hileroko kuota finko orokorra 39 eurokoa da Kirol Errotan. Hala ere, deskontu zehatzak ere badituzte Ibaizabal ikastolako kideentzat. Esate-

rako, gurasoentzat 34 euroko prezioa da hilean. Ikasleen kasuan, ostera, 29 euro dira hilean. Prezio horien guztien barruan, gimnasioaren erabilera eta klase guztiak sartzen dira. Hau da, gura duten saioetara joateko aukera dute erabiltzaileek. Gimnasioaren ordutegia 7:00etatik 23:00etara bitartekoa da astean zehar, eta asteburuetan 8:00etatik 22:00etara bitartekoa. Gimnasioko erabiltzaileek parking pribatua eskuragarri izango dute autoa aparkatzeko.

# KIROL ERROTA

gimnasioa

kirolerrot@ibaizabalikastola.eus  
www.ibaizabalikastola.eus  
Intxaurren kalea, 54  
DURANGO  
Tel.: 603 740 550

### FITNESSA, APARKALEKU PRIBATUA ETA EDOZEIN EKINTZATAN PARTE HARTZEKO AUKERA!

- Gimnasioa
- Sauna
- Entrenamendu funtzionala
- Ciclo Indoor
- Hiit
- Pilates
- Giharren Tonua

ORDUTEGI  
ZABALA  
Astegunetan  
07:00etatik 23:00etara  
Asteburuan  
08:00etatik 22:00etara

# 39

eurotan

Parkina  
doan





# "Biok irabazi gura dugu desafioa, baina herrian sortzen dabilen giroa da inportanteena"

Otxandioko plazatik Oriol tontorrera joan-etorria nork arinago egin desafioa dute, bihar, Aitor Ajuria eta Oskar Urkiolak



Oskar Urkiola eta Aitor Ajuria Otxandioko plazan, apustua hasi eta amaituko den tokian.

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Herrian zeresana ematen dabilen desafio baten lekuko izango da zapatuan Otxandio. Aitor Ajuria korrikalaria (Otxandio, 1998) eta Oskar Urkiola txirrindulari ohia (Leioa, 1995) dira protagonistak. Honako hau da desafioa: Otxandioko plazatik 11:00etan irtenda, Oriol mendi tontorrerako joan-etorria nork arinago egin.

Desafioak bere berezitasunak ditu. Aitor Ajuria urterik urtera bere maila hobetzen dabilen korrikalaria da. Aurtengo otsailean, Euskal Mendi Federazioak sari bat eman zion bere urteroko galan, 2018an egindako lanaren aitortza moduan. Bestalde, Oskar Urkiola txirrindulari ohia da. Orain urte bi utzi zuen bizikleta, Cafés Baqué taldean lau urte eman eta gero. Beraz,

desafioa errealitate horretara moldatu dute, ahalik eta parekoena izan dadin. Ajuria korrika egingo du joan-etorri osoa. Urkiolak, oster, Oletarainoko bidea, noranzko batean zein bestean, bizikletan egingo du. Gainerakoa, korrika.

Urkiolak arineketan egin beharreko tarte osoan, Mikel Sanchez korrikalariaren laguntza izango

**Ajuria korrika egingo du joan-etorria; Urkiolak Oletarainoko zatia bizikletan egingo du**

du, erritmoa markatzeko. Ajuria, oster, berak bakarrik egingo du ibilbide osoa, laguntzarik barik.

Urkiolak sendia otxandiarra du aitaren aldetik, eta, beraz, sarritan egoten da Otxandion eta aspalditik ezagutzen du Ajuria. Lagunak dira.

## Jaietan sortutako dema

Lagunarteko solasaldi batean irten zen apustuaren ideia. "Santamaña jaietan izan zen. Bata bestea baino burugogoragoak gara eta, gainera, gure ingurukoak bataren edo bestearen alde ipintzen hasi ziren. Orduan okurritu zitzaigun desafiorena", adierazi du Ajuria.

Harrezkero, herrian bolo-bolo dabilen gaia dela diote eta dema iragartzen duten kartelak ere ateratu dituzte. "Biok irabazi gura dugu desafioa, baina herrian sortzen dabilen giroa da inportanteena. Goiz

entretengarri bat eskaintzea da helburua", azaldu du Urkiolak.

Biak entrenatzen dabilta desafioa irabazteko. Joan zen aste amaieran, Ajuriaren denboratik minutu batera zegoen Urkiola. "Errekuperatu dezakedan denbora dela uste dut. Hori, jakina, Aitorrek egia esan badit bere denboraren inguruan", azaldu du Urkiolak. "Esan

**Santa Maña jaietan irten zen gaia, lalgunartean, eta aurrera eramatea erabaki dute**

diodan dena egia da, baina beste egia bat edo beste neuretzat gorde dut", argitu gura izan du Ajuria.

## Jokaldia

June Arbo  
Sarriguarte  
Korrikalaria



## Hobetzeko biderantz jauzia

Udari agur esan eta bizitza berri bati hasiera eman diot. Izan ere, Espainiako Atletismo Federazioak emandako beka bati esker, Leongo Errendimendu Handiko Zentroan entrenatzen hasi naiz, eta hemen jarraituko ditut nire ikasketak.

Txikitatik praktikatzen dut atletismoa, baina, azken urteotan, beste seriotasun batekin hartu dut, eta, ahal dudan heinean, entrenamenduei eta txapelketei ahalik eta dedikaziorik handiena eskaini nahi diet. Hori dela eta, aukera ona iruditu zitzaidan hemen bizi eta entrenatu ahal izatea; eta, egia esan, pertsona pribilegiatua sentitzen naiz, hainbeste gustatzen zaidan kirol hau baldintzarik onenetan egiteko aukera eman didatelako.

Izan ere, errendimendu hobea lortzen laguntzen didaten instalazioak eta zenbait osasun zerbitzu ditut, eta nire entrenamenduen eta osasunaren kontrol zehatzago bat egiten didate. Arlo horretan, alde handia nabaritu dut, eta hobekuntza ekarriko didala uste dut.

Baina, batez ere, bertako jendearen laguntza azpimarratu nahiko nuke. Lehenengo egunetik bertako entrenamendu taldeak eskuzabal hartu ninduen, eta hasieratik laguntzeko prest agertu ziren. Egunero taldean entrenatzeak asko laguntzen du psikologikoki; taldekideak geure artean laguntzen eta motibatzen gara. Gainera, gaur egun Espainian eta nazioartean elitean dabilen jendearrekin entrenatzeko aukera dudanez, beraiek erreferentziatzat hartuta asko ikasi eta hobetu dezaket.

Nahiz eta etxea uzteak pena ematen duen, hobekuntza bat izateko beharrezkoa den aldaketa da. Gogor lan egingo dugu emaitza oparoak iritsi daitezten.

 **Smurfit Kappa**  
Central Forestal

**50 urte**  
EUSKADIKO  
PINUDIAK  
ZAINTZEN

 **Smurfit Kappa**  
Nervión



**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
www.inmoetxetxo.com

**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
www.inmoduranguésado.com  
inmoduranguésado@gmail.com

**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

**//AUKERA**

**ANTSO ESTEGIZ:** 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. C.E.E: **135.000€.**  
**IURRETA:** 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Ilogailua. **120.000€.**  
**BERRIZ:** 155 m<sup>2</sup>. 3 solairu igogailuagaz. 4 logela, 3 komun, sukalde-jangela eta egongela tximiniagaz. Estudioa. Trastelekua. **160.000€.**  
**KURUTZIAGA:** 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handia. **99.000€.**  
**IURRETA:** 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. 1. mailako materialekin berriztatua. **97.500€.**  
**ZALDIBAR:** 3 logela. Garajea. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatua. **98.000€.**

**//ETXEBIZITZAK SALGAI**

**DURANGO:** Sta. Ana. Promozio berria. 1,2 eta 3 logelakoak. Trastelekuagaz. **172.000€**-tik aurrera.  
**MONTEBIDEO:** 135 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela-jangela. 2 terraza. Ganbara. Garaje itxia. Etxe osoak kanpora ematen du. C.E.E: **183.000€**-tik aurrera. (BEZ-a barne)  
**TXIBITENA:** 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ganbara eta garajea. **215.000€.**  
**BERRIAK ESTREINATZEKO:** 2 eta 3 logelakoak. 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Ganbara. Garaje itxia. **130.000€**-tik aurrera.  
**KURUTZIAGA:** 80 m<sup>2</sup>. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **186.000€.**

**ARTEKALE:** Erdigunean. 83 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ilogailua. **178.000€.**

**GAZTELUA:** Lursaila. 26.044 m<sup>2</sup>. 6 partzelatan banatua. Fruta-arbolak ditu (600 sagarondo, zenbait partzelatan).

**MATIENA:** Laubideta. 3 logela, 3 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ilogailua. Eguzkitsua.

**J.A. AGUIRRE:** 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara eta garajea. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. **250.000€.**

**IURRETA:** 2 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Bizitzaren sartzeko prest. Eguzkitsua. **115.000€.**

**ERRETENTXU:** 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea aukeran. **240.000€** negoziagarria.

**ATXONDO:** 85 m<sup>2</sup>. 3 logela, komuna eta egongela. 2 terraza. Garajea. Txokoa. Berriztatua. **148.000€.**

**SAN INAZIO:** 100 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 komun, horma-armairuekin, sukalde handia eta egongela handia. Terraza. Garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. ALOKAIURIAN, EROSTEKO AUKERAGAZ. **256.000€.**

**ABADIÑO:** Familiabakarra. 484m<sup>2</sup>. 1.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila eraikitzeke aukeragaz. Garajea aukeran. **229.000€.**

**IURRETA:** 111 m<sup>2</sup>. 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. 12 m<sup>2</sup>-ko terraza. Garajea eta trastelekua. **276.000€.**

**BERRIZ:** 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **65.000€.**

**//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIURIAN**

**MENDIZABAL:** Itxia. **24.000€**-tik aurrera.  
**TABIRA:** 30 m<sup>2</sup>-ko garajea. Argiagaz eta uragaz. **35.000€.**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** **8.000€**-tik aurrera garajeak.

**ABADIÑO:** 160 m<sup>2</sup>. Egokitua. Dena erakusleihoa 2 kaletan **185.000€**

**ABADIÑO:** 75m<sup>2</sup>. **75.000€.**

**ZALDIBAR:** Salgai. Ganbara zabala. Bulegorako edo estudiorako egokia. 24-35m<sup>2</sup>. Ekonomikoa.

**//ETXEBIZITZAK SALGAI**

**DURANGO:** Askatasun Etorbidea. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela.

**DURANGO:** Antso Estegiz. 3 logelako pisu ederra. Sukalde berria, komuna eta egongela. Ikuspegi ederrak.

**DURANGO:** Eraiki berria, 2 eta 3 logela. Azkeneko 3 etxebizitzak salgai. 178.000€-tik hasita.

**DURANGO:** Komentu kalea. 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Eguzkitsua. Ilogailua eta gasa.

**DURANGO:** Jose Miel Barandiaran. Etxebizitza ederra. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Garajea eta trastelekua. Durango erdian.

**DURANGO:** Komentu kalea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Ikuspegi ederrak.

**DURANGO:** Hegoalde kalean. Eraikin txikia. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**IURRETA**

**Maspekalea:** 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea balkoiagaz. Eguzkitsua. Ilogailua.

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

**ZALDIBAR:** 3 logela, bainugela, sukaldea eta egongela balkoiagaz. Berriztatua. Trastelekua.

**//LURSAILAK SALGAI**

**GAZTELUA:** 10.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Lekuonean. Egokia.

**ABADIÑO:** 1.000 m<sup>2</sup>-ko lur saila salgai. Bifamiliarra eraikitzeke baimenagaz. Zonalde egokia.

**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

**ABADIÑO:** Bifamiliarra eraikitzeke lursaila, 1.000m<sup>2</sup>. Informazio pertsonalizatua.

**AMOREBIETA. EUBA:** Txalet bifamiliarra eraikitzeke lursaila. 3.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila.

**//BASERRIAKETA TXALETAK SALGAI**

**MAÑARIA:** Baserrria salgai. Herrian bertan. 3.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

**ELORRIO:** Aldape auzoa. Baserrria berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 125.000€

**ATXONDO:** Baserrri ikusgarria Martzaa auzoan. 15.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Teilatua berriztatua. Zonalde egokia.

**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Baserrri bifamiliarra. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO:** Eraikin txiki ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreintatzeko.

**BERRIZ:** Baserrri ederra, Murgoitiko zonaldean. 3 hektareako lursaila.

**//BULEGOAK ALOKAIURIAN**

**ABADIÑO:** 40 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita.

**//GARAJE ITXIAK SALGAI**

**DURANGO:** Garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

**//LOKALAK ALOKAIURIAN**

**ALDE ZAHARREAN:** Hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

**//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI**

**MATIENA:** 460 m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

**www.inmoduranguésado.com**

**BERRIZ**  
  
240 m<sup>2</sup>  
**BERRIZ:** Andikona auzoa. Familia bakarreko etxebizitza, 3 solairutan banatutakoa. 10.000 m<sup>2</sup>-ko partzelan. Ikuspegi ederrak.  
**449.000€**

**DURANGO**  
  
86 m<sup>2</sup>  
**ANDRA MARI:** 86 m<sup>2</sup>. Etxebizitza eskusiboa, eraikin enblematikoan. Egoera onean. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun.  
**285.000€**

**DURANGO**  
  
2 logela  
69,18 m<sup>2</sup>  
**ERROTARITXUENA:** 69,18 m<sup>2</sup>. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta 2 komun. 18,32 m<sup>2</sup>-ko garaje itxia.  
**285.000€ / C.E.E:E**

**DURANGO**  
  
3 logela  
89,75 m<sup>2</sup>  
**LARRASOLOETA:** Erreforma estrainazeko. Egongela, sukalde jantzia estreintatzeko eta 2 komun lehiorekin. Berogailua. Ganbara.  
**248.000€ / C.E.E:E**

**DURANGO**  
  
2 logela  
60 m<sup>2</sup>  
**ANTSO ESTEGIZ:** 60 m<sup>2</sup>. 2 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Ilogailua desgaituentzat. Ganbara.  
**180.000€ / C.E.E:E**

**DURANGO**  
  
3 logela  
71 m<sup>2</sup>  
**TABIRA:** 71m<sup>2</sup>. Eguzkitsua. 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia.  
**180.000€ / Neg.**

**//DURANGO.**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€ / E.E.Z=F**

**ERRETENTXU:** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. **190.000€ / E.E.Z=E** Garaje itxia aukeran

**EZKURDI:** 4 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, 2 bainugela eta igogailua. **260.000€ / E.E.Z=E.**

**EZKURDI:** 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. LEHEN 321.500€ / ORAIN **300.000€ / E.E.Z=F**

**IBAIZABAL:** logela, sukalde-egongela eta komuna. **170.000 € / E.E.Z= E**

**KURUTZIAGA:** 2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. **99.000€ / E.E.Z=F**

**MONTEBIDEO:** 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Ilogailua. **230.000€ / E.E.Z=F**

**SANTIKURUTZKALEA:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600m<sup>2</sup>-ko lurzorua. **640.000€**

**TXATXIENA:** 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **390.000€ / E.E.Z=E**

**//ABADIÑO**

**ZELETABE:** 3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. LEHEN 342.576€ / ORAIN **278.000€/E.E.Z=E**

**ZELETABE:** 3 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainugela. Trastelekua eta garajea. **235.000€ / E.E.Z=E**

**//BERRIZ**

**BILBO ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea, egongela-jangela eta 3 komun. Balkoia. LEHEN 195.000€ / ORAIN **160.000 € / E.E.E=E**

**ELIZONDO AUZOA:** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta komuna. Balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. LEHEN 142.000€ / ORAIN **134.000€ E.E.Z=G**

**ERROTATXOKALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. LEHEN 95.000€ / ORAIN **85.000€ E.E.Z=E**

**LEARRETAMARKINA:** 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia. **102.000€ / E.E.Z=E**

**//IURRETA**

**FAUSTE:** Baserrria lurzorugaz, **220.000€ / E.E.Z=G**

**//MATIENA**

**TXINURRISOLO:** 3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000€ / E.E.Z=F**

**//OTXANDIO**

**ELIZABARRI:** 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000€ / E.E.E=F**

**OLETAUZO:** banakako etxebizitza. 460 m<sup>2</sup> 3 solairutan banatuta. 4 logela, egongela, sukaldea eta 3 komun. Garajea eta txokoa. 5.000 m<sup>2</sup>-ko lursaila. **480.000€ / E.E.Z=E**

**//ELORRIO**

**BERRIOTXOA:** 3 logela, sukaldea, egongela, jangela eta bainugela. **160.000€ / E.E.Z=E**

**//BERRIAK**

**//BERRIZ**

**ERROTATXOKALEA:** 2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela eta komuna. **100.000€ / E.E.Z=G**







## Botikak

**BARIKUA, 11** · 09:00-09:00

**ETXEARRIA**

Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**ZAPATUA, 12** · 09:00-09:00

**GAZTELUMENDI J.A.** Abasolo 2 - **DURANGO**

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**DOMEKA, 13** · 09:00-09:00

**BAZAN DIAZ** Uribarri 5 - **DURANGO**

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**ASTELEHENA 14** · 09:00-09:00

**BALENCIAGA** Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

**RUIZ, JUAN** El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**MARTITZENA, 15** · 09:00-09:00

**UNAMUNZAGA** Muruetatorre 2C - **DURANGO**

**RUIZ, JUAN** El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**EGUAZTENA, 16** · 09:00-09:00

**IRIGOIEN** Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

**RUIZ, JUAN** El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**EGUENA, 17** · 09:00-09:00

**NAVARRO** Artekalea 6 - **DURANGO**

**RUIZ, JUAN** El Alto-Bide Zahar 14 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

## Zorion Agurrak



**GOZATU**  
**GOZATEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11. DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozategi

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Zorionak, txapeldun! Oso ondo pasa zure egunean. Jarraitu beti bezain alai. Muxu asko familia osoaren partez.



Gure etxeko politari bere urtegunean mila zorion eta muxu asko etxekoen partez!



Zorionak, **Txomin!** Ondo-ondo pasau zure urtegunean. Asko maite zaitzue eta oso harro gauz zutaz!



Zorionak, **Oier** eta **Aretx** Uribelarrea. Gaur 6 urte egiten dozuez. Mosu handi bana etxekuen partez.



Zorionak, **Aunitz**. Urriaren 14an 9 urte! Belarritik tirekada handi bat etxekuen partez. Jarraitu beti irribarretsu. Muxu handi bana.



Zoridxonak,

## Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 27° / 16°



DOMEKA 🌞 30° / 17°



ASTELEHENA 🌧️ 23° / 13°



MARTITZENA 🌧️ 16° / 11°



EGUAZTENA 🌞 20° / 8°



EGUENA 🌧️ 18° / 10°



# Eman zure botoa udako argazki lehiaketan

Bozkatu [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean  
Urriaren 11ra arte  
Animatu eta parte hartu!

**UDAKO**  
**5. ARGAZKI**  
**LEHIAKETA**

**anboto**   
komunikabideak



## “Beti onik irten arren, askotan tentatu ditugu sokamuturreko bigantxak”

Jaizale Durangaldeko Txistulari elkarteako kideak dira Goiuri Iturriza eta Uri Barreña, jai giroa iragarriz sanfaustoetan diana joko duten txistularietako bi dira. Andra Marin elkartuko dira, 07:00etan, Durangoko kaleetan ibilbidea hasteko

### Uri Barreña

#### Egidazu

(Durango, 1959) eta

#### Goiuri Iturriza Zamakona

(Durango, 1969)

- Sanfaustoetako diana joko dute

### Berba bitan

#### Abesti bat?

**Uri:** Benito Lertxundiren edozein.

**Goiuri:** Benitoren bat bakarria aukeratzea ezinezkoa zait, beraz ‘Martxa baten lehen notak’

#### Liburu bat

**Goiuri:** Gaztelaniaz ‘La herbolera’, eta euskaraz ‘Azeri dantza’

**Uri:** Baztango trilogia

**Zeren falta igartzen duzue Sanfaustoetan?**

**Goiuri:** Kuadrillen igoerarena. **Dianarako indarrak hartzeko gosaria?**

**Goiuri:** Goya bat, kafesnea eta croissant-ak

**Uri:** Goya, kafesnea eta gurinopila

**Txistua ez den musika tresna?**

**Uri:** Pianoa

**Goiuri:** Infernuko hauspoa

#### AKUILUA • AITZIBER BASAURI

**Eguna argitzeagaz batera irtengo dira txistulariak. Goiztiarrenak izango dira sanfaustoetan, eta etxera joateko asmorik ez duten parrandazaleekin bat egingo dute. Nabarmena da txistuaren eboluzioaren eraginez beste maila bat hartu duela. Hala ere, Barreñak eta Iturrizak argi dute txistuak kalean ere egon behar duela.**

**Noiz sortu zitzaizuen txistua jotzeko interesa?**

**Uri:** 8-9 urtegeaz hasi nintzen, Txoritxu Alain dantzan ari nintzela.

**Goiuri:** Lehengusina baten ezkontzan, Alejandro Aldekoa txistularia jotzen ikusita. Tronperrin txistularia behar genuela-eta, animatu egin nintzen, eta Aldekoa izan nuen irakasle. 10 urte nituen, eta harrezkero jotzen dut. **Uri, urteetan jo barik egon ondoren, orain bi edo hiru urte hasi zara berriro...**

**Uri:** Juanan Aromarena da errua (barrez). Askotan animatu nau. Azkenean, senarrak eta biok heldu diogu berriro; gauza asko gogoratzeko modua dut txistua. Amak beti sustatu du musika etxean.

**Ahalegin handia eskatzen du dianak?**

**Uri:** Ez, gustura joaten naiz. Ohetik jaikitzeak apur bat...

**Goiuri:** Kostatzen zait goiz jaikitzea, bai! Zer esanik ez parranda apur bat egin badut. Baina, behin martxan jarrita... gustura ibiltzen naiz. Ez dut damurik izaten. Jende asko ezagutzeko bidea eman dit txistuak, ia familia bat sortzeko.

**Nola hartzen zaituztete kalean?**

**Goiuri:** Oso ondo! Kurioa da, ze askok kontu hartzen digute pasatzen ez bagara. Taldeka, zenbait ibilbide egiten ditugu, ahal dela Durango osora heltzeko.

**Uri:** Batzuk balkoira irteten dira, nagusiak batez ere. Polita da.

**Gautxoriekin egingo duzue bat...**

**Goiuri:** Askotan! Sapuetxera hurbiltzean, urrunetik ikusten genituen. Batzuk kalejirara batzen ziren. Beti ondo, errespetuz. Banango ere eskatu izan digute inoiz.

**Baduzue pasadizorik gogoan?**

**Goiuri:** Beti onik irten garen arren, askotan tentatu ditugu sokamuturreko bigantxak. Behin, armozua amaituta, berriro sartu ginen bigantxen bidera, eta irtetea, taldeko bat hesian tratatu zen. Arduradun bat etorri behar izan zen.

**Orditik giltza dugu.**

**Zein da jaietako ekintzarik gogokoena?**

**Uri:** ‘Zezenak dira’. Amagaz joan nintzen lehenengoz. Etxean asko bizi izan dugu. Orain, hesiaren atzetik ikusten ditut.

**Goiuri:** Artopilak. Zaletasuna itzela da, baina, ‘Zezenak dira’ barik ere jaiak bizi daitezkeela uste dut. Igarriko nuke euren falta, baina mentalizatuta nago. Adinekoak, umeak, gazteak... denerik batzen dute. Gustatzen zait hori.



### Lauhortza

Martin Loizate  
Sarrionandia  
Ikaslea



#### OLATUAREN ZAIN

Bi urte pasatu berri dira Katalunian autodeterminazio erreferenduma egin zutetik, hautetsontzien bidaia epiko hartatik, Espainiako poliziaren biolentziaren bideoak mundu osora zabaltu zirenetik, eta ia bi urte eragile sozialetako bozeramaileak, legebiltzarreko presidentea eta kontseilariak atxilotu zituztenetik.

Prozesu independentistaren aurkako sententzia atejoka dugu (baliteke zutabe hau argitaratu denerako eman izana) eta joan den astean Argia aldizkarian Jordi Cuixart eginiko elkarrizketan seguru zioen 10 urte baino gehiagoko kartzela zigorra jasoko zutela. Abisua Euskal Herrira zeharka: helburu politiko batzuk ez dira zilegi. Baina azken hilabeteotako *impasse* egoeraren hondon egosten ibili da sententziari erantzun bat, tsunami demokratikoarena, zehaztasunez irudikatu ezin den arren, (des)obedientziaren filosofian sakonduz bazter guztiak bustiko dituen. Tsunami baten berezko indar suntsitzailearekin, Espainiar Erregimenarekin haustera doana, baina olatu eraikitzaile bat finean, orain arteko ariketa (des)obedienteen logikan, kolektibitate, epika eta baldintza berriak sortuko dituen.

Eta nola ez, tsunamia hona ere helduko da, jaiak bustiko ditu, kaleak astindu. Oraingo abisua zabaltu da egunean bertan kontzentrazio zaratsatuak egiteko. Ikusiko da, tsunamia surfetzeko bezain abilak garen, burua urpean sartu eta olatu pasatzen uztea ez delako aukera bat.

# ALKIMAX

Irtenbideak alokatzen ditugu

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550

GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



#### Hosto-haizagailua



Paper birringailua

#### Enborrak ezpaletan zatitzeko makina



Hortzak mozteko motosega OREC

**NOBEDADEA!**